

# *Abiaburu bat Donostiako euskera aztertzeko\**



*Iñaki Camino*  
(EHU. Gasteiz)

---

\* Lan hau egiteko aurkeztu zen proiektuari 1997ko Karlos Santamaria beka esleitu zitzaion Donostiako Udaleko Euskara Patronatuaren aldetik; erakunde horrekiko dugu, beraz, lehen zorra kitatzekoa. Lan honen oinarri diren datuak biltzen lagundu gaituzten Axun Muñagorri filologialaria, anaia Jabier Camino eta Mikel Mendizabal irakaslea ere hartzekodun ditugu. Zorretan gaude, bestalde, Gipuzkoako euskeraren gaineko hainbat datu jakingarri bildu duten *Euskaltzaindiko Euskal Herriko Hizkuntza Atlas* [EHHA]-ko kide Izaskun Etxebeste eta Koro Seguroolarekin ere, egin duten lana ere baliatu baitugu inoiz; *Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikoa* [EAEL] ere baliatu dugu. Aginagako datuak Pella Zubiriak emanak dira eta bihoazkio berari ere gure eskerrak. Orobat, zorretan gelditu gara lan honen lehen zirri-borroari ohar aberasgarriak egin dizkieten Fidel Altuna, Koldo Artola, Jabier Camino, Izaskun Etxebeste, Juan Antonio Letamendia, Txomin Sagarzazu; Mikel Zalbide eta Koldo Zuazorekin.

## 1. Atarikoa

Euskal Herriko hizkuntzalaritzaren tradizioan euskalki bat aztertzea ez da gauza berria: Arabako euskara, bizkaiera zaharra, gipuzkera zaharra, lapurtera, zuberera... ikertzaile batek baino gehiagok aztertu ditu. Honelakoetan idatzizko testuei eman ohi zaie garrantzirik handiena, ez herrixka jakin bateko lekukoei. Hizkerak osorik aztertzeke ohitura ere errokatutrik dago gure artean: Aezkoa. Baigorri, Baztan. Burunda. Erroibar-Esteribar, Erronkari, Goñerria, Sakana, Ultzama, Zaraitzu... Ohitura aspalditik datorren arren -Aldude, Altsasu, Mutriku, Ondarroa, Sara- erkidego ez biziki handietako mintzoa aztertzea aski ugaltu da azken garai honetan eta soilik herri bateko mintzoa aztertzea hedatuz doa: Abadiño, Antzuola, Aramaio, Areso & Leitza, Arrasate, Ataun, Azpeitia, Basauri, Bergara, Bermeo, Beskoitze, Butroe, Eibar, Ermua & Eitzaga, Etxarri-Aranatz, Forua, Getxo, Goizueta & Arano, Hondarribia, Irun, Iurreta, Lasarte, Laudio, Leioa, Lekeitio, Luzaide, Mundaka, Oiartzun, Oleta, Oñati, Orio, Otxandio, Pasaia, Sopela, Tolosa, Urduliz & Gatika, Zeberio, Zegama...

Donostiako euskera aztertzeke eskuartein daukagun xedea ez da artein Euskal Dialektologiak izan dituen ohiko egitekoen guztiz iduria eta arrazoa begien bistakoa da: Donostia ez da edozein herri, hiri bat baizik, biztanle eta hiztun ugari duena. Herrixketan ohiz izaten ez diren hainbat egiteko eta funtzio edukitzen dituzte hiriek: salerosketa, eskulangintza, finantza, kultura, erlijioa, hezkuntza, administrazioa eta politika, besteren artein, eta ez da harrizkekoa izaten hiriko era eta molde urbanoek, arte laburragoa edo luzeagoa barne, inguruko herrietan eragina izatea eta nolabaiteko kutsua uztea: ohituretan, hainbat ikuspegitan. jardueretan... Gizakiona den ezaugarri bat baldin bada, hizkuntza da hori, eta ezina litzateke beste arloetan horrenbesteko eragina duen hiriko izakerak eta ezaugarri bereziek hizkuntzaren arloari ezaugarri berezirik ez txertatzea. Euskarak duen baino egoera aruntagoa eta osasuntsuagoa duten hizkuntzen artein hizkera urbanoek ezaugarri bereziak dituztela esan ohi da. Hurrengo hauek izan daitezke ezaugarri horietarik batzuk:

a) Herri txikietako hizkuntza-ereduak zaharragoak eta, beraz, jatorragoak diren arren, hizkera urbanoek prestijioa eduki ohi dute: hirikoak diren hizkuntza aldaera edo formak kopiatzera jo ohi dute aldameneko eta urrunagoko herri txikietako hiztun goranahiek edota linguistikoki egokitu nahian -ohartuki nahiz oharkabean- dabilzanek; cf. 4.1.8. atala<sup>1</sup>.

---

1.- Lan honetan *hizkuntza-aldiera* erabiltzen denean hizkuntza-forma edo forma linguistikoa adierazi nahi da; esaterako, adizki bat, morfema bat, sintaxiko egitura bat, ez inola ere "hizkera bat".

b) Hizkera urbanoetan maiz sumatzen da aldameneko herri edo ibarretako hizkeretarik apurtxo bat bederen bereizteko borondatea. Europako elite urbanoak herrixketako populazio masatik kulturaren aldetik eta baita linguistikoki ere bereizten ahalegindu direla erakutsi digu historiak.

c) Aldakortasun maila handikoak dira hizkera urbanoak, halakoxe koine edo hizkeren nahasketa gertatzen da hirietan, hauetara hainbat lekutako jendea biltzen baita eta bizitzera joaten. Aldakortasuna ez da soilik hiztun batetik bestera gertatzen, hiztun batek berak hizkuntza-aldaera desberdinak erabiltzea ere litekeena da. Etxera etorritz, oroitaraztekoa da feria eta azoka dela bide, joera handia izan dela Gipuzkoan nahiz Nafarroan Tolosara jotzeko; jakina da Tolosako euskara ere aldakortasun maila handikoa dela; cf. Kandiko Izagirre (1967: 157).

d) Estandarizazioaren eragina handiagoa izaten da hirietan herri txikietan baino; ororen buruan, hiritarren gizartezko sareak askotarikoagoak dira herrietako biztanleenak baino. Herrixketan sare horiek hertsiaagoak izan ohi dira eta irmoago eutsi ohi zaio hauetan dialektoari edo honen ezaugarriei.

Norbaitek galde lezake ea Donostiako euskerak hirietako ohiko hizkuntza-eredu urbanoen tankerarik zerbaitetan ba ote duen. Erantzuna aski erlatiboa eta batez ere ñabarduraz betea beharko luke izan; ez gara hasiko kanpotik etorritako kaskoinek hiri berria sortu zuten garaitik hona Donostian hizkuntzen arloan zer gertatu den aztertzen, ez gara horretarako ez gai ezta egokienak ere<sup>2</sup>. Oroit bestalde, Donostia Gipuzkoako hiriburu bakar izate hori ere ez dela betiko ezaugarria. Lehen Karlistadaren ondokoa baizik; izan ere, Foru Aldundiak Tolosan jarraitu zuen eta Gipuzkoako Batzar Nagusien bilkurak era ibiltarian egiten ziren. Tolosako euskarak duen prestijioa ere gogoan hartzekoa da<sup>3</sup>. Juan Bautista Agirre Asteasukoaren predikuetan “hiria” Tolosa da oraino. Eta Beterriko euskarak ospea eta bultzada izan dituen arren, Donostiakoak ez dirudi aldezele ugari izan dituenik: Kardaberaz salbuespena da, eredutzat baitarabil andre donostiarra bere *Eusqueraren Berri Onac*-en (1761), baina aski da Larramendik aipatzen dituen “barbarismo” delakoez oroitzea; Larramendi bera iturri zuelarik L. Hervás-ek zioenez “en San Sebastián se usan muchas palabras forasteras introducidas malamente en el vascuence” (1979 [1804]: 227-8). Soroaren antzerkietan ere ezagun du: “Ikasi nai dubenak euskera garbiya, txokoratu lezake gure komeriya, badago nunbaitian obia neurriya, biba euskaldunak eta biba Donostiya!” ¡*Au ostatuba!* lanean dakarrenez. *Gabon* antzerki lana ere *euskara nastuban* dakarkigu. Mitxelenak ere txirotzat hartzen du Bilintxen hizkera: “lengua algo encanijada de un centro urbano” (1988 [1960]: 134); ikus Pelay Orozco ere (1978: 22). J. A. Mogelek zioen bezala Bilboko euskarak ere ez du ospe onik batere eta arrazoa arestiko bera da: *Ené, ara toroa plazaan manzania jaaten*: “bilbotarren erdi erdera erdi eusquera daucate Vizcai gucico euscaratzat” (1800: XV).

---

2.- Pasaian jatorri kaskoia duten toponimoak %7 dira egun, baina gibelera joz gero franko ugaltzen dira: XVI. mendean %50era aise iristen zirela esan daiteke (Elortegi 1992: 199). Donostian kaskoin hizkuntza garai bateko kaiko arrantzaleekin lotu ohi da eta idazki ugari dago Donostiako artxibategietan hizkuntza honetan idatzirik, Camino doktoreak, Serapio Mujikak eta Ricardo Ciervidek erakutsi bezala.

3.- Garbitasunaren eta batez ere ulertzeko erraztasunaren aldetik dakusa Candido Izagirrek mito honen alderdi bat bederen (1967; 1.57- 8).

Bestalde, hizkera urbanoak hizkuntza jakin bateko atala dira eta jakina denez, hizkuntza guztien egoera eta izaera ez dira inolaz ere bat eta bera. Nabarmena da hizkera urbano guztiek ezin izanen dituztela leku guztietan - hizkuntza guztietan, egokiago esanik agian- ezaugarri berdinak eta begien bistakoa da euskararekin alderatzea komeni zaigun hizkera urbanoak ahalaz minorizatuak izatea litzatekeela egokiena, baina guk aurkitu ditugun azterketa ia guztiak egoera aski arrunta bizi duten hizkuntzetakoak izan dira.

Egun euskara hizkuntza guztiz ahula da Donostian gaztelaniaren aldean hala estatusaren aldetik nola demografiarenetik eta honelatsu izan da XX. mende honen bigarren erdian ere: ziur aski XIX. mendearen bigarren erdia izan da Donostian erdara euskarari gaina hartzen hasi zaion garaia; cf. Altzibar (1992: 326) eta Zalvide (1993: 10-11). Jose Vicente de Etxagarai (1773-1855) bertsolariaren jokaera elebidunean eta Marzelino Soroa Lasa idazle kaxkariñaren lanetan (1848 1902) nabarmen ageri da erdararekiko euskara menpekotasun egoeran sartzen ari dela: Soroak alabari erdaraz idatzi eskaintza (1882)<sup>4</sup>. beraren *Azak eta naste* liburuaren egituratze diglosikoa edo *Euskal-Erria* aldizkarian atalka atera zuen “Baratzan” idazki bilduman ageri den hainbat pasarte “Emen etorri da kaballero euskeraz dakiyen ura” (1886: 477) garden mintzo dira maila goretan erdarak eta euskarak duten lekuaz. 1931n Schuchardt saria jaso zuen Augustin Anabitarte idazlearen *Donostia* elaberriak; bertan ere iradokitzen da zein den euskarak hirian XIX. mendearen bukaeran duen estatusa (1986: 135). Madrildarrak ere ohartuak ziren (1896) donostiarrek erdaraz gehiago egiten zutela euskaraz baino (K. Izagirre 1998: 165). Koldo Artola dialektologialari donostiar ezagunaren aitona zen Pepe Artola euskal idazleak XX. mendearen hasieran kontatzen duenez, Donostiako Boulevarderaino Parte Zaharrean euskaraz mintzatzeko ohitura dago euskaldunen artean, baina behin Kortazar zabalgunera iritsi orduko erdararen indarra gogor sentitzen hasten da, horregatik, P. Artolak zioenez, “Rioja” Donostiako Boulevardean hasten zen:

*Baratxur<sup>5</sup> ta tipula sortak zintzilik zituztela, agertzen ziran [errioxarrak].  
Orregatik erdera-zale xamarra zan bere alaba bati, orrela esaten zion: “Bañan nundik  
atera degu gure neska tipulera au? Gure alaba al da edo nungoa degu?” (1961: 12).*

Gogora ekar dezagun Donostiako harresiak lurrarekin berdintzea 1863ko kontua dela; zabalgunea berria eraikirik hiria hedatzen hasiko zen, baina zabalgunea eraiki aitzineko harresiez landako Donostia, baserriar girokoa izan behar zuena, euskaraz mintzo zen. Usurbilko mugan dagoen Igeldoko Artikula baserrian sortutako gure amona Donostiako kalera Antiguara jaitsi zen usurbildar batekin ezkonduarik; Antiguako izebek esan digutenez “euskera galtzen ikustia beste penik ezta” frankotan esan ohi zuen emazteki hark frankismoa baino lehenagoko urteetan. Estatusaren aldetik menpekotasun egoera honetan iraun izanak eragin nabarmena izan du Donostiako euskeraren corpusaren egungo egoeran.

---

4.- A mi hija Manuelita: a tí, que eres el consuelo de mi vida, te dedico este pequeño ensayo Euscaro con el que tanto te has reído, como prueba del cariño de tu padre que te quiere y pide al cielo por tu virtud y felicidad (Marcelino).

5.- Jatorrizkoak *babatxuri* dakar, baina iduri luke hutsa dela.

Ohi denez, hiriak izaten dira hizkuntza-arauarekin lotura hertsiena duten gunek eta berauek dira eredu estandarra sendoen ibili ohi den lekua. Eredu estandar bat dagoen edo sortzen den lekuetan, goi mailako jendeen artean gertatzen da nabarmena estandarizazioaren indarra eta hori, bereziki, hirietan gertatzen da: tradiziozko hizkera urtuz doa apurka-apurka eta dialekto urbano subestandar berri bati uzten dio bere lekua. Baina zein izan da XIX. mendearen bigarren erdian eta XX.aren bitartean komunikazio nagusietarako funtzioa bete duen eredu estandarra, prestijioa atxiki ohi zaiona Donostian? Bertako euskera bederen ez, erdara baizik<sup>6</sup>. Hartara, kalean gaztelania nagusitzearekin batera donostiar euskaldunak bigarren mailako azpigizarte linguistiko bihurtu dira; nagusi zebilena erdara izatean, azken garaietan bederen -aitzineko egoera ez dugu ongi ezagutzen- hiriko euskera ez dirudi aldameneko auzo eta herrixketako euskaldunendako erreferentzia jomuga izan denik: iduri luke Donostiako euskerak ohiko hizkera urbanoen ezaugarrietarik batzuk behintzat falta dituela eta ez da harrizkeoa batere: ez zen kalean eta gizarteko maila goretan nagusi zebilen mintzoa.

## 2. HIZKUNTZAREN URBANIZAZIOA

Gizarte mailako aldaketak, berrikuntzak eta mugimendu demografikoak izan ohi dira hizkuntza-egoera berrien erantzule. Honakoa da XIX-XX. mendeetan Industria-Iraultza jasan duten hirietan hizkuntzek / hizkerek jasan duten bilakabiderako ikertzaile ezagunenek erabili ohi duten eskema: eskualdeetako hizkuntza-aldaera ruralak eta aldaera urbano ez estandarrek hartu-emanen jartzen dira, eta beren arteko nahasketa bat gertatzen da (Bortoni-Ricardo 1985; Trudgill 1986; Maehlum 1986; Siegel 1993 -Trudgill-ekiko kritikoa-; Nordberg 1994; Thomas 1997; Lodge 1998). Hona ondoren zein hizkuntza-gertakari datorren:

a) Hirira iritsi diren dialekto edo aldaki dialektal desberdinak berdinkartzeko joera dago.

b) Nabarmenak, deigarriak, arras markatuak edo dibergenteak diren berezitasunak galtzen dira eta hedatuak direnak nagusitzen; cf. Hinskens (1998: 43).

c) Erregularitasun morfofonemikoa indartzen da.

d) Ordura arteko aldaera dialektalen edo estilistikoaren kokapen funtzional berria gertatzen da eta adiera –balio sinboliko- berria hartzen dute identitatearen edota konbergentziaren / dibergentziaren aldetik; hor zeharreko ikerketetarik ondorioztatzen denez balio sinbolikoen interpretazioa egitean baitezpadako dira irekitasuna, malgutasuna eta kontu handiz jokatzeara.

---

6.- Ez dugu ukatzen Beterriko euskarak, eta beraz Donostiakoak, prestijioa ukan duenik: Goierriko idazki ugari zegoen Larramendi baino lehen. Larramendiz geroztik eta berdin Bonapartez geroztik literaturan gaina hartzen die Beterriko hizkerak Gipuzkoako beste moldeei: Serapio Mujikaren mende hasierako hitzetan ere sumatzen da hobespenaren zantzu zenbait: "... el habla de Goi-erri [es] más áspera y vigorosa que la de Berri ó septentrional, que resulta más dulce y agradable al oído" (1907: 58).

Donostiako hizkeraren kasuan arestiko lau gertakari horiek edo horietarik batzuk gertatu ote diren eta gertatu baldin badira zein norabidetan gertatu diren esan ahal izateko dagoen baino ikertuago beharko luke egon eskuartean darabilgun gaiak: ez dirudi, esaterako, a) ezaugarria bete denik, baina honetaz mintzatzeko azken hiru ezaugarriek ongi azterturik beharko lukete egon: artean, Donostiaren inguruko berri batzuk ematea ez da kalterako izanen. Dakigunez, Donostia ez da industriaren aldetik anitz nabarmendu den hiria, zerbitzuak eta salerosketa dira beharbada beraren ezaugarri nagusienetarik. Halaz ere, hiri izanik, bi eratako jendeak bederen ingurarazi ditu azken mende honetan: batetik inguruko herri txikietako era guztietako lagunak, bizibidea bilatu beharrez hirira jo dutenak; hauetarik anitz nahitaez behar zuten euskaldunak. Beste aldetik Gipuzkoaz kanpoko donostiartuak ditugu, Espainiako beste hiri batzuetarik zetozen erdaldunak: denetariko langileak ere izanen ziren bai, baina gizarte maila goraxegoa zuten lanbide liberaletako lagunak ere ez dira guti izan eta berebizikoa izan da gaztelaniaren prestijioa goratzen hauek eduki duten garrantzia, bai bederen euskaldun anitzek, eta jakina, donostiar anitzek beren hizkuntzaz izan duten bazterketa bezainbatekoa.

XX. mendeko bigarren erdiaren atal handixko bat ezagutu dugunok sumatu uste izan dugunez, Donostiara etorri diren herri txikietako euskaldunak, gipuzkoarrak gehien bat, ez dira Donostiako mintzora egokitu, ez dute beren euskara aldatu eta goierritarrak Goierriko euskara ematen zuen Donostian euskaraz jarduten zuenean eta azkoitiarrak ere beretik - baina ikus artikulua honetako 4.1.8. atalean dioguna-; iduri luke Donostian denborarekin inguruko hizkeren ezaugarriak hein batez neutralizatuko zituen euskarazko subestandar urbanoa ahula zela, beren ezaugarriez emeki gabetuko zituena eta euskaldun etorri berriei Donostiako erak kutsatuko zizkien eredia ahula zela. Donostian euskaldunek osatzen zuten azpigizartea ahula zen botere linguistikoaren aldetik, euskara bera baitzen ahul zegoena. Alde honetatik, Donostian hizkera estandarrik izan baldin bada, gizartean goranahiei bideak irekitzen zizkiena, *linguistic market* delako horretan kapital linguistikoa eskaintzeko ahala zuena -cf. Sankoff & Laberge 1978-. erdara zen eredu estandar hori.

Donostiaratutako gipuzkoar horien euskararen ezaugarriak hirian higatzeko, neutralizatze eta aldarazteko ahala duen subestandar urbano bat ez baldin badago, hiritartuek beren jatorrizko mintzoa egiten jarraituko dutela itxaron dezakegu eta horrek Donostiako hizkuntza-aldakortasunaren maila areagotzea eragiten du, "bertako eredia" gehi kanpoko beste batzuk baitaude batera hirian. Donostiara bizitzera etorriak edo Donostiara ezkonduak donostiar batekin esposatu baldin badira, horien seme-alaben hizkeran beharbada guraso donostiarraren hizkera nagusituko da, baina bereziki herritik Donostiara ezkondua ama baidin bada, bidialektalismo maila zenbait itxaron dezakegu familia horretan. Esaterako, Antigua aldaera hauek eman dituzten lekukoak bi gurasoetarik bat Donostian ez sortua zutenetarik dira: *itte(n)* & *iten* 'egiten', *attu* 'aditu'. *dittuna* 'dituena', *zittuen* 'zituzten'. *due* & *dute*, *iñular* 'ilunabarra', *giñun* 'genuen', *giñitun* & *ginitun* 'genituen'. Donostiara ezkonduakoa ama ala aita den alde batera utzirik, lan hau egiteko baliatu ditugun lekuko donostiarren gurasoetarik bat sortzez donostiarra ez zen kasuetan azterketa dialektala zinez konplexua eta uste genuen baino anitzez zailagoa gertatu dela aitortu beharrean gaude, beti ez baita aise izan ezaugarri bat benetako Donostiako ezaugarria den ala kanpotik sartutako aldaera den ziurtasunez jakitea. Kontrol talde gisa erabiltzeko eta garantiazko juzkuak egin

ahal izateko, bi gurasoak donostiarrek dituzten adineko pertsona kopuru bat beharko genuke eta hauexei galdegin ea donostiarrekiko elkar-hizketetan eta inkestagintzan atera zaizkigun hizkuntza-aldaera horiek Donostiako ezaugarri jatorrak diren ala kanpoko kutsu zenbait duten. Kontrol lan hori egiteko zail da, ordea, ezaugarri horiek dituzten donostiar kutsurik gabekoak egun aurkitzea, eta bereziki Donostia urbanoan da zaila.

Hiriko egitura soziodemografikoa herri txikietakoa baino konplexuagoa da eta hori hizkerak ezagun du. Eman dezagun adibide bat: *zat* / *zait* lehia ez da guztiz ezezaguna Donostiako inguruko herrietan. Esate batera, Andoainen *zat* eta *zait* ditugu: Zarautzen *zat* bildu zuen Azkuek mende honen hasieran, baina *zait* bildu da 1985.ean. Orion ere Azkuek *zat* bildu zuen, baina J. Arostegi oriotarrak dioenez *zat* ez da Orioko aldaera (Irizar 1991: 167). Donostiako kaian guk *zat* eta *zait* bildu ditugu aita zarauztarra zuen lekuko batengandik; Pasaia San Pedron ere ageri da *gustátzen za(t)* (EAEL). Altzako Patxiko Arzak bertsolariak (1859-1928) ere *nerre denboran etzat aztuko* darabil (Zabala 1968: 110); Marzelino Soroaren lnean ere badator: *neri gustatze etzat -ducat*-ekin erriman bada ere- (*Anton Caicu*, 12). F. Imazek ere badakar *zat* (Zabala 1963: 49 eta 117); Pepe Artolaren lanean ere bada *zat* (1961: 34). Aieteko Lugaritzen, bestalde, *etzak* 'ez zaik' bildu du Koldo Artolak (EAEL). Hau guztia ikusirik nekez izan lezake inork i gabeko aldaerak Donostiakoak direlako zalantza, eta halaz ere guk ez dugu gaia bat ere garbi ikusten oraindik. Korapilo hau askatzea azterketa xeheagoen baitan dagoela uste dugu eta lan hori egin gabe dago oraino.

Ohiko Euskal Dialektologiako lanetan tokian tokiko hizkera ongi eta leial ordezkaten duten lekuko edo berriemaile fidagarriak aurkitzea izaten da lehen helburua: Donostian frankotan badirudi helburu hori ezin erdietsizkoa dela eta kosta egiten zaio ikertzaileari hiria den bezalakoa dela onartzea: jabetu beharko luke ez dela endogamia maila handiagoa duen herrixka urrun bateko hizkera aztertzen ari. Donostiakoa baizik. Halaz ere, aldeak alde, lekuko batzuk beste batzuk baino fidagarriagoak direla biltzen diren hizkuntza-ezaugarriek berek salatzen dutenez, ezina dirudien amets horren baitara ahalik eta gehien hurbiltzeko itxaropenaz dialektologialaria lanari lotzen zaio.

Donostiako euskera edo Donostiako hizkera aztertu nahian bagabiltza, ezin ditzakegu Euskal Dialektologian orain artean erabili diren ikuspegi berberak baliatu. Orain arteko azterketek erkidego aski homogeenetako hizkerak aztertu dituzte: lekukoaren gizarte-sarearen egitura ez zen sobera konplexua eta hizkeraren ordezkari leialak ziren, beren jaioterriari arras loturik bizi izandako lekukoak hautatzen ziren ahalaz. Baina hirietako lekukoaren errealitatea ez da berdina izaten eta lanak izaten dira beren gizartezko sareen berri gardena izaten; cf. Milroy (1980) eta Requena (1996). Barne migrazioa edo urbanizazioa jasaten ari den eremu batean hizkuntza-arauen arteko lehia edo gatazka gertatzen da. Litekeena da hirietako biztanleen arteko % 50-a ez izatea hirian sortua; inoiz, 30-50 urte bitarteko biztanleen artean, % 70-era irits daiteke hirian sortuak ez direnen portzentaia (Nordberg 1994: 2). Donostiako zifra zehatzik ez badugu ere, hona Hondarribian egun zer egoera dagoen: 1996ko erroldan. bertan sortuak ez ziren biztanleria guztiko % 46'3a besterik, erdiak kanpotik etorriak ziren; jabetzen gara arazoa konplexuagoa dela oraindik,

baina harritzekoa ote da egungo gazte hondarribitarrek beren artean euskaraz dihardutenetan herriko bereko hizkera ia bat ere ez erabiltzea, txantxetarako ez bada?

Neke da gizartezko sareketaren aldetik guztizko eta jatorrizko donostiar garbiak diren lekukoak aurkitzea, bi gurasoak donostiarrak eta ahalaz auzo berekoak dituztenak, eta hain zuzen haxe da orain arteko euskararen inguruko dialektologiako lanen aldean Donostiako honek duen berezitasuna, hizkuntza-aldaera bat Donostiakoa dela esateko ez dela aski Donostian erabilia izatea: hein batez aspaldikoa behar du izan Donostian, eta XIX. mendean idazkietan ageri baldin bada, hobeki. Espero zitekeenez eta hirietan ohikoa denez, Donostia bi gurasoetarik bat bederen donostiarra ez duten euskaldunetz josirik dago, eta horrek izugarri areagotzen du hiriaren barreneko hizkuntza-aldakortasun maila, hala interpersonal nola intrapersonal. Ez da aise ezaugarri bat Donostiakoa den ala kanpoko den erabakitzea; donostiar garenok ere nahiko lan izaten dugu horretan. Hautatzen ditugun lekukoak sortzez “kaxkariñak” izatea funtsezkoa da, baina ez da aski. Ahalaz, hala aita nola ama, biek behar dute donostiarrak izan. Eta euskararen izaera eta egoera diren bezalakoak eta ez bestelakoak direlako eta Donostiaren geografia hedadura handia delako, lekuko donostiar horien bi gurasoak donostiarrak izatea ere ez da aski; ahal dela biek auzo berekoak behar dute izan. Horregatik lan honen emaitzen kalitatearen giltza gutxienez bi iragazkitan finkatu behar dela iruditzen zaigu: lekukoaren gizartezko sareak ongi ezagutzea baitezpadakoa da, batetik, eta donostiar jatortzat hartu ditugun egungo euskaldunek darabiltzaten aldaerak XIX. mendeko idazkietan agertzea aldeko frogatzat har daiteke gutiz gehienetan. Zernahi ere den, XIX. mendeko euskal idazle donostiarren hizkera eta hizkuntza-ezaugarriak aztertzean ere harri berean behaztopa gaitzkeela begien bistan dagoen gauza da; esate baterako, J. V. Etxagarairen aita donostiarra zen baina ama urrestildarra; Fermin Imazen aita Alegikoa zen eta ama tolosarra<sup>7</sup>; Pepe Artolaren lehen emaztea zizurkildarra zen eta bigarrena zarauztarra.

Dagoeneko esan dugunez, eredu estandar bat dagoen edo sortzen den lekuetan, goi mailako jendeen artean gertatzen da nabarmena estandarizazioaren indarra eta bereziki hirietan gertatzen da hori: tradiziozko hizkera urtuz doa apurka-apurka eta dialekto urbano subestandar berri bati uzten dio bere lekua. Ikusteko dagoen gauza da Donostian egun sortzen edo indartzen ari den eredia dialekto urbano subestandar bat ote den, baina ez dago inolako zalantzarik egun Donostian tradiziozko euskera guztiz ari dela itzaltzen eta urtzen. Donostiako euskera zeukan koloreaz gabetzen ari da etengabe, *dialect levelling* izendatzen den prozesuan sarturik dago bete-betean eta gailentzen ari den eredu estandarrek Donostiako bereko hizkeraren kolorea zenbateraino gordeko duen zail da iragartzen, baina ez dirudi biziki handia izanen denik ezta inolako kontsolidazio dialektalerako baldintzak sumatzen direnik ere. Eredu estandarren eta folk hizkeren arteko adbergentzia edo goitik beherako eragin diglosikoa gaitza da egun euskaraz leku batzuetan; Donostiako euskeraren aldetik galbidean dauden aldaeren adibideak dozenaka eman daitezke<sup>8</sup>:

---

7.- Ez zaigu iruditzen, dena den, Fermin Imazen bertsoetan Donostiako euskera islatzen denik.

8.- Adibide gehienak Igeldotik eta Usurbildik Antiguara jaitsitako senarremazte batzuen alaben jardunetik (1963-1982) atereak dira: ez bedi pentsa, bestalde, adibideok soilik Donostiako ezaugarriak direnik, aldameneko herrietan ere ageri dira; Donostian galtzen ari direlako dakartzagu hona.



*arratzian* 'iluntzean', *asnasa* 'arnasa', *auxen* 'hauxe', *baluteke* 'balute', *batzoi* 'baratxuria', *beatzaz* 'berari buruz', *bejela* 'bezala', *beranduba da* 'berandu da', *despaziyo* 'emeki, mantxo'<sup>(9)</sup>, *dizka* 'dizkio', *ekatzute* 'ekar ezazue', *ementxen* 'hementxe', *enreamakilla!* 'nahasle denari esana', *etera* 'atera', *far* 'barrea', *gaixti* 'garestia', *garagarril* 'ekaina', *ginbeleta!* 'kirtena!, kaikua!'. *ibildu* 'ibili', *itzazo* 'itsasoa', *ixiri* 'eseri', *jatena* 'bazka', *laja* 'utzi', *lanbat* 'larunbata'. *mañon* 'baina', *marruaz* 'negarrez'<sup>10</sup>, *mesere* 'mesedea'. *naskitzu* 'dizkidazu & iezazkidazu', *nastutu* 'nahasi', *nau* 'dit', *oju* 'oihu', *onenian* 'agian', *suba* 'sua', *sugur* 'sudurra', *txarki* 'gaizki', *txinistu* 'sinetsi', *Uliya* 'Uilia alderdia', *zaitia* 'zaitez', *zube* 'sugea'. *Zurriyola* 'Groseko Zurriola'...

Datiboko morfema bigarren pertsonako singularra nahiz plurala denean ohikoa zen *-zkitzu* atala ere *-zaizkitzu, dizkitzu diskizutet-* ez da entzuten egun Donostiako kaleetan; ezaugarria, gainera, ez da markatua, ez da soilik donostiarrena: Orion, Usurbilen, Lasarten. Igeldon, Hernanin. Pasaian, Erreterian -Lezo sal buespena da-, Oiartzunen, Irunen eta Hondarribian ere badago ezaugarri hori, baina egun neke da honelakorik donostiarren ahotik entzutea, non eta ez den adineko lagun batengandik.

Ez dezagun pentsa, bestalde, soilik gurean ari direla herri hizkerak urtzen. Estandarizazioaren garaiaren hurbiltasunagatik sentitzen dugu hori, hizkuntzaren batasun esplizitua duela hogeita hamar bat urte hasi zelako eta egun ere inoiz baino areago Euskaltzaindia erabakiak hartzen eta hedarazten ari delako. Iruditzen ez bazaigu ere, hemendik kanpo industrializazioaren ondorio den urbanizazio eta homogeneizazio prozesua herri hizkerak koloregabetzen ari da. Italiako egoeraz diharduen Sobrero-ren 1997ko azterketa batean (Görlach 1999: 187), erregistro estandarren hedapena eta dialekto nabarmen edo markatuen beheraldi "drastikoa" aipatzen zaizkigu. Danimarkan soilik herritarren %5a mintzo da dialektoan: Kopenhageko eredia da nagusi dabilena. Era berean, bizimoduaren homogeneizazioa hainbat lekutan eredu edo aldaki urbano direlakoen nortasuna ere ahultzen ari da: Belgikan, industrializatu gabeko Brujas hiriko hizkera urbanoa mendebaldeko flamenkera orokorrak irentsi du, azken honek etorkia nagusiki rurala edo suburbanoa duen arren (Taeldeman 1998: 16).

Tradiziozko eredia ahultzean sor daitekeen dialekto urbano berri honen berezitasuna leku batzuetan besteetan baino markatuagoa izaten da. Esaterako, leku batzuetan hizkuntza-desberdintasun bertikala edo diastratikoa -gizartezkoa- nabarmenagoa da beste batzuetan baino; suediera erabil dezakegu adibide gisa: Finlandiako Närpes-en erlatiboki homogeneoa da mintzo duten suedieraren aldakia, baina Suediako Eskilstunakoa, berriz, gizarte aldetik arras estratifikaturik dago, aldakortasun interindibiduala handia da (Ivars 1994: 206).

Lekukoen gizartezko alderdia ohiko dialektologia lanetan baino hertsiago zaindu beharreko atala dela adierazi dugu. Ondorioa begien bistakoa da: Donostiako euskera dialektologia tradizionalaren ikuspegitik aztertzeko soziolinguistikaren ekarria aintzat hartu behar da. Nahiz ez den urbe industrializatu bat, Donostia gutxi asko hiri bat da: nahitaezkoa da ekukoen ikuspegi ahalik eta holistikoena edukitzea, osoena, euskaldun horien bizia eta

9.- Aginagan *espaziyo*z *artzak* edo *espaziya* *artzak* esan ohi da lan edo edari zenbait lasai eta presarik gabe hartzeko eskatzean.

10.- Pertsonetarako erabiltzen da Donostian eta badira adibideak Soroaren antzerkietan; Aginagan behiez esaten da.

beren historia linguistikoa gogoan hartzea: bizitzarekiko ikuspegia, bizitzeko modua, hizkuntzaren erabilpenaren osagai ideologikoa... Baina ez bedi horregatik pentsa lanaren helburua guztiz berritzailea denik, ez horixe: lan hau dialektologia tradizionalako saio bat gehiago da, euskarak horren beharrezko dituen horietarik bat gehiago. Beste batzuen aldean zehatzagoa eta punttalakurloago behar du izan nahi eta nahi ez, baina helburua ez da inondik ere egun Donostian nolako euskara egiten den aztertzea, hori soziolinguistikaren jarduna da, ez dialektologiarena, ez gara Donostiako euskera mintzatua bitarteko harturik soziolinguistika lan bat egiten ari, guk Donostiako bereko hizkera bildu eta aztertu nahi dugu, arau estandar berriarekiko horrenbeste hartu-emanik eduki ez duten adineko euskaldun donostiarren mintzoa da gure arreta bilduko duena, ez egungo Donostian egiten den euskararen aldakortasuna neurtzea eta deskribatzea. Euskaraz bederen dialektologia urbanoa oraingoz dialektologia tradizionalaren bidetik egin beharra dagoela irizten diogu, ezinezkoa baita soziolinguistika lan sendo eta txukunik Donostian egitea alde aurretik bertako hizkeraren nondik norakoak aztertu gabe. Viaplanaren hitzen eta ideien inguruan murgiltzea eta nondik nora jo argi edukitzea komeni litzaiguke:

*Per dialectologia urbana se sol entendre la branca més evolucionada de la dialectologia social. Té com a característiques pròpies el caràcter marcadament urbà i l'aplicació sistemàtica de tècniques adoptades de les ciències socials, i especialment de la sociologia. El caràcter urbà la diferencia de la dialectologia regional, que ha situat històricament el seu àmbit específic en el marc rural; l'aplicació sistemàtica de les tècniques de les ciències socials la diferencia de la dialectologia social tradicional, que ha aplicat tècniques pròximes a les de la dialectologia regional (1996: 175).*

Dialektologia tradizionalako helburua duen azterketa sakon bat izatea lagungarri da ondoren soziolinguistikako lan xuxenak gauzatzeko. Arazo zaharrei ohiko dialektologiak eman erantzunak deusetarako irakurri gabe eta atera ondorioak gogoan hartu gabe egin dituzten soziolinguistika analisiak arazoz beterik egon izana gertatu zaie behin baino gehiagotan Ameriketako hainbat soziolinguistari; baitezpadakoa da soziolinguistikaren abiapuntua ohiko dialektologiaren ondorioetan oinarritzea, soilik haiek ezaguturik abia daiteke honelako lan moderno bat; hemen eta nonahi. Halako jarduna itsuaren alferrikako berrikeria baizik ez litzateke, “epatatze” nahikaria baino ez; aldaketa prozesu batean barreneraturik dauden hizkuntza-aldaera edo formen antolaketa eta hurrenkera ulertzeko eta egoki interpretatzeko nahitaezkoa da ordura artean aldaera horiek eduki duten egitura, funtzionaltasuna eta balio sinbolikoa hein batez bederen ezagutzea; baita zein lekutan erabiltzen ziren eta non ez, zein testuingurutan eta zertarako jakinaren gainean izatea ere; dialektologiak ez du aztertzeko soilik aldaera baten existentzia edo in existentzia.

### 3. EREDUAK: ASKOTARIKO KONSTELAZIOAK

Hurrengo lerroetan Donostiako euskerak ageri dituen ezaugarriekiko parekotasuna erakuts dezaketen beste hiri batzuetako adibideak dakartzagu. Gure hiriko euskeraren ezaugarri

batzuk ez doaz hor zeharko literaturan hizkera urbanoei esleitu ohi zaien izaerarekin batera eta honek hasieran harridura sortu du gudan; zernahi ere den, literatura sakonxeago ezagutu orduko beste hiri batzuetan ere Donostiakoak bezalako hizkuntza-egoerak gertatzen direla ohartu gara.

3.1. Ez dirudi azken mende honetan bederen Donostiako hizkera inguruko herrietako euskal hiztunenak erreferentzia edo jomuga izan denik: ez dugu uste Donostiako hiritarren hizkuntza-ezaugarriak ingurumarietara hedatu direnik; azken mende honetan bederen ez dirudi erakarpena duen prestijiozko hizkeratzat hartua izan denik, ezta inguruko herrietan ospe onaren perekorik deus izan duenik ere. Donostiako auzoetan ageri diren hizkuntza-ezaugarriak frankotan ez dira hiriko kaletarrek erabiltzen dituzten berdinak izaten: auzoetako ezaugarriak usu ondoko herrietako ezaugarriei begira daude, ez donostiar kaletarren ezaugarriei. Balirudike auzoetako donostiarrek bizimodua kaletarrekin baino gehiago ondoan dituzten herriei begira egin izanak eragin duela auzo horien hizkuntza-erreferentzia hiria ez baizik eta ondoan zuten herria izatea. 225.000 laguneko hiria da Belgikako Ghent. Bertako dialekto flamenkoa indartsu dago hiriaren barrenean, gazteendako erakargarria da eta auzoetara hedatzen ari dira hiriko hizkerako ezaugarriak, baina behin hiriko harresietarik ateraz gero, aldameneko herrixketara ez dira hedatzen ezaugarriok, ez badira holandera estandarrekin bat datozenak; hirian berean prestijioa eduki arren, hiriko hizkera ez da ingurumarietara hedatzen ari (Taeldeman 1998: 15).

3.2. Tradiziozko dialektologiaren arabera esan ohi da hiriek ez dutela barne isoglosarik izaten eta isoglosak garrantzi sozioekonomikoa, kulturala edota politiko-administratiboa duten bi gune edo hiriren arteko eremu zenbaitetan elkartzen edo batzen direla. Aurkako adibidea da Alemaniako Augsburg hirian gertatzen dena: Hego Alemaniako hizkuntzan trantsizioa edota hizkeren arteko jauzia eremu laburretan gertatzen omen da. Augsburg hiriko egoera bitxia da: Bavariako dialektoaren eta dialekto sueboaren artean kokaturik dago; bertako hiritar batek darabiltzan hizkuntza-ezaugarri bavariarren edo sueboen zenbatekoaren arabera jakin omen dezakegu lagun bat hiriko mendebaldekoa ala ekialdekoa den (Anzenhofer 1998: 99). Donostia ere ez da barne isoglosarik gabeko hiria eta ziur aski lotura dago ezaugarri honen eta arestiko a) ataleko egoeraren artean; kaletarren hizkeran homogeneotasun zerbait sumatzen da, baina hasi Altza-Ulia aldetik eta Añorga-Ibaeta-Igeldo alderdiraino, bada aldea: sinkopa adibideak ditugu Altzan, aferesi adibideak Altzan eta Ulian, pluraleko hirugarren pertsonako ergatiboko eta datiboko -e morfema hiriaren mendebaldean -eskuinaldera -te dago-, *zixkien* erako txistukari bizkarkariaren bustidura sumatzen da mendebaldean Igeldon eta Hernani aldean ere; bestalde, *zitxiokan* 'zioan' erako adizkiak ditugu Añorgan. Donostian ez dira falta hiriarik atxikitzen zaion barruti geografikoari dagokion eremua bi aldetan banatzen duten isoglosak. Zernahi ere den garrantzizkoa da irudi lakunarioa bi eremu bereizten dituen isoglosaren iruditik bereiztea, eragin desberdina egon baitaiteke bakoitzaren gibelean; bestela esan, hiriaren inguru guztietan gertatzen den ezaugarria hirian ez betetzea ezin nahas daiteke hirian mendebalde eta ekialdea banatzen dituen hizkuntza-ezaugarri baten errealitatearekin, desberdinak dira bata eta bestea.

3.3. Esan dugu dagoeneko ez dirudiela azken garaietan Donostiako hizkerak inguruko herrietarik etorri diren hiztunen hizkuntza-ezaugarriak neutralizatzeko edo aldarazteko moduko hizkera subestandar urbanoen ohiko eran jokatu duenik. Donostiako euskeran gertatzen denaren antzeko jokabidea suma dezakegu gutxiengotuz dagoen Nigeriako

Maiduguri hiriko arabieran. 200.000 biztanleko hiri honetan hizkuntza nagusiak “kanuri”, “hausa”, “margi” eta “bura” dira. Ez dago arabieran fokala dei daitekeen eredu urbano prestijiozkoaren itxura duen deus ere. Gwange, Gambaru eta Ruwan Zafi izeneko auzoetan erkidego bana dago nagusi, eta sorterritik ekarri arabierazko aldaerak dira nagusi auzo bakoitzeko erkidegoko partaideen artean. Hiru auzoetakoak edo bi auzotakoak elkarrekin nahaska mintzatzen diren aldietan ez da sortzen ari orain arteko aldaki dialektalak ordezkatzeko dituen arabierazko eredu urbano fokalizatu bat edota koine bat; aldakortasun orokorra nagusi dago hirian beren artean arabieraz mintzatzen diren hiru azpitaldeen artean (Owens 1995)<sup>11</sup>.

3.4. Norbegiako Trondheim hirian, aldameneko nekazarien hizkuntza-aldaera hurbiletarik urrundu nahiak -estatus urbanoa nabarmendu nahiak, beraz- batetik, eta arrantzaleekiko merkataritza hartu-emanak, bestetik, hiriko hizkera mendebaldeko arrantzaleen aldaera urrunagoetara hurbiltzea eta ondo-ondoan dituzten nekazarien hizkeratik urruntzea eragin du (Dalen 1993: 48). Baliteke Donostiako hizkeran ere egoera horren antzeko zerbait gertatzea. Izan ere, aldea dago hiriko kaletarrek egiten duten eta hiriko auzoetako hiztunek egiten duten euskeraren artean: iduri luke Donostiako ingurumarietako bazter guztietan ageri den *tt* hotsa edota hiketako trataera falta direla Donostiako kaletarren ahoan<sup>12</sup>; bestalde, hitz bukaerako hiatusak eta erakusleetako *oiek*, *aiek* > *oik*, *aik* laburtzeko Gipuzkoako hainbat eta hainbat lekutan dagoen joerak Donostiako auzo baztertuenetan du agerpena, ez kaletarren artean. Honelako bereizketak, hiriko hizkera aldameneko herrixketatik desberdintzen dutenak ezagunak dira; eman dezagun beste adi bide bat:

3.5. Serbiako Nis hirian serbiera estandarra ongi ikusia da eta Zagreb eta Split-eko hizkerak ere prestijioa dute, baina Nix-eko berekoak ez, hiritarrak ez dira beren hizkerarekiko biziki leialak izan. Halaz ere, ondoko herri txikietako biztanleak entsegatzen dira Nix hiriko bereko mintzora hurbiltzera. Nix-ekoari Resava ibaiaren inguruko Kosovoko hizkerak - urrun ez duenak- eragiten dio pixka bat, eta prestijioa du; delako kosovo-resavera hizkera hau eredu estandarrera hurbilagoa da Nix-ekoa baino. Egun Nix-eko hiritarrek beren hizkera aldameneko herrixketako prizreno-moravera eredutik desberdina dela diote, baina Nix-eko Stevan Sremac elaberrigilearen (1855-1906) pertsonaien mende hasierako mintzoa egungo herrixketakoaren berdina da. Hizkuntzaren aldetik hiria mende honetan ondoko herrixketarik desberdindu da eta Nix hiriko dialektalismoak estereotipotzat hartzen dira orain, anekdotetarako. Esan ohi da Sremac-en elaberrietako pertsonaiak direla hiriko aldaera leialen ordezkatzaila eta ez egungo hiritarrak. Pertsonaia horien hizkera hurbilago dago herri txikietako egungo hizkeratik Nix-eko egungotik baino, zeina serbiera estandarrera hurbiltzen ari den eta jatorrizko prizrenomoravera-tik urruntzen. Prizreno-moravera hizkeraren ezaugarri markatuenak. beste hizkera serbioetan ez daudenak, maisu-maestrek estigmatizatu dituztenak, horiexek galdu dira lehenik Nix-en (Thomas 1997). Ohiz hizkera batek ez ditu bere ezaugarri guztiak galtzen, eta galtzen dituenak ez ditu denak batera galtzen. Testuingururik testuinguru, garairik garai, gunerik gunee, egiturarik egitura eta

---

11.- Herri txiki bateko bame aldakortasun maila handiaz diharduen lan interesgarria dugu Dorian-ena (1994).

12.- Parte Zaharreko hitzun batzuek ezetz uste dute arren, kaian entzun daiteke hiketan eta Bilintzek ere bazerabilen: “Bersolariyen guduak” neurtitzetan, esaterako, eta baita M. Soroak edo F. Imazek ere.

hiztunik hiztun galtzen ditu, besteak beste. V. M. Schirmunski-k “lehenik” eta “bigarrenik” ordezkaturikako ezaugarri dialektalen arteko bereizketa aspaldixko egin zuen: hizkera edo dialekto batean ezaugarri ordezkatuak dauden neurri berean aldaketari aurre egin dioten eta galdu ez diren ezaugarri dialektalak ere badaudela adierazten digu; ikus Bellmann (1998: 33); itxarotekoa denez, geografia hedadura zabalena duten ezaugarriak dira *out-group* elkar-hizketetan azkenik galtzen direnak (Hinskens 1998: 43).

Donostiako euskerak beste hizkuntza baten menpean iraun du, ez bere hizkuntza bereko aldaera prestijiozkoago baten ondoan eta, beraz, aipatu dugun Mix-ekotik bestelakoa da eskuartearen daukagun egoera, baina ikaragarria da Sremac-en pertsonaien mintzoa / Mix-eko egungo hiritarren mintzoa eta Soroaren pertsonaien mintzoa / Donostiako egungo hiritarra ekuazioan gertatzen den parekotasuna. Ez beharbada aldameneko herrixketako ezaugarrietarik urruntzeko asmoak, baina berreuskalduntze ofizialak eta eredu estandar berriak Donostian gogor eragin dute bertako hizkeraren kaltetan; lotu honi Donostian kaleko - ez gara familiarteaz ari- eredu euskerazko indartsurik egon zedin erdarak ez duela utzi. Euskara berriak gune erraza zuen Donostia hedatzeko eta indartzeko eta egun alde handia dago ingurumariko herrietako hizkeratik Donostian egiten den euskarara; azken batean herri horietan etxeko, lagunarteko, kaleko eta gizarteko eredu herriko bereko euskara baita. Ez da harrizkoa Getariako edota Legorretako euskaldun gazteengandik entzun daitekeena: “gazte donostiarrek ez dute ezaugarri dialektalik eta guk geure herrikoa egiten dugunean guztiz bitxia gertatzen zaie. are inoiz berak gaizki sentitzeraino ere”. Dialektoa itzaltzen ari den honelako egoera batek donostiar gazteen artean eragin ditzakeen bilakabide berriak askotarikoak izan daitezke, baina ez litzateke harrizkoa beste hizkuntza eta dialekto batzuetako literaturan aipatzen diren hiperdialektalizazio joerak edo aldaera interdialektalak sortzea.

3.6. Ez dezagun pentsa. ordea, hiriko eta aldameneko herrixketako hizkera bereiztea leku guztietan gertatzen denik. Finlandiako Jakobstad eta Ekenäs hirietako hizkeratik aldameneko herrixketakora ez dago urruntasunik: bai. ordea. Kristinestad eta Lovisa-n. Jakobstad eta Ekenäs-ko behe mailetan aldameneko herrixketako hizkera da soziolektoa. Ekenäs-en, goi mailetan estandarra da; Bigarren Mundu Gerra eta gero nekazariak hirira jo dute eta hiriko behe maila osatu dute beren herrixkako hizkera eramanik (Ivars 1998: 105).

3.7. Europako bi hiri handitako eredu urbanoen lehen bakan batzuk dakartzagu orain: Londresko dialekto urbanoa Kent-eko mintzamoldearen eta Essex-ekoaren arteko nahasketa batetik sortu zen. baina araua klase goren eta burgesiaren hizkeran oinarritu zen Londresen: behe mailetako londrestarengandik bereizteko, Oxford eta Cambridge inguruko mintzoa nagusitu zen burgesen artean eta ez Londreskoa berekoa; maila goretako hiztunek kanpora jo zuten eredu bila bereizketa bertikal bat eginez eta *cockney* delako mintzoa irrieragingarri bihurtu zen. Halaz ere delako Londresko *cockney* mintzo hori ez da itzali eta hedatzen ari da (Lodge 1998).

Pariseko mintzo urbanoan dialekto pikardoen eragina sumatu da: gramatikalariek aldaera pikardo hauexek estigmatizatu zituzten hasiera-hasieratik. Gero, estandarizazioa etortzean, burgesiaren hizkera nagusitu eta finkatu zen idatzizkorako era arbitrarioan; gramatikalarien aldetik Pariseko bereko mintzoari eraso zitzaion. Eliteak hiritik

ingurumarietara alde egin zuen: Pariseko burgesiak ez zion eskualdeko nortasunari eutsi. Arras galdurik dago Pariseko bereko mintzoa egun, Londreskoa baino galduagoa. Place Maubert eta des Halles-en iraun zuen gehien. XIX. mende erdian bizi-bizirik zegoen Pariseko hizkera Bigarren Mundu Gerraren ondoren galdu dela esan ohi da, estandarrekin berdinkaritzen ari dela: 1872.ean Pariseko dialekto tradizionala hila zela idatzi zen. 1930. urte inguruko filme batzuetan ere aurki daiteke eta egun “parigot” delako azentuan bizi da. (Lodge 1998).

3.8. Hizkera urbanoen gaian euskal adibideak lortzea ez da aise. Iruñean euskara noiz arte egin den badakigu eta bertako toponimia gehiena euskararen bidez azaltzen ahal da, baina ez dugu ezagutzen bertako hizkera. Zerbaitxo ezagutzen dugu Oltza zendeakoa eta aski ongi Ezkabartekoa eta bereziki Eguesibarko Elkanokoa, baina Iruñekoa ez: XVII. mendeko Beriain idazle utergarraren lanean ageri den euskara Iruñekoa bada, orduan bai, zertxobait ezagutzen dugula esan dezakegu. Zerbait argi baldin badago, hizkeraren arloan Oltzako zendeatik Eguesibarkora aldea badagoela da hori: cf. Camino (1999 eta 1999b).

Bilboren kasuan ere –Mikoleta salbu, nahiz ama zamudiotarra zuen- ez dago aukera handirik euskara urbanoaz deus jakiteko; azken garaiotan nagusiki hiri erdalduna izan da, gainera: Bilbon euskara gune urbanotik urrun dauden auzoetako baserritarren artean gorde da, hegoaldean Larraskitun, iparraldean Begoñan -Arbolantxan eta Otxarkoagan- eta hirugarrenik Buja alderdian: Seberetxen, Bolintxun, Bujan eta Bujagoitin. Auzo horietako euskaldunek ez omen dute Bilborekin berebiziko hartu-emanik izan, urrun zegoen berentzat hiria eta mendiaz bestaldera aldameneko herrietakoekin izan dute euskarazko hartu-eman: Arbolantxa eta Otxarkoagakoek Zamudiokoekin, Larraskitukoek Zollokoekin eta Bujakoek Basaurikoekin. Beren artean Bujak eta Larraskituk leukakete hartu-eman elkarrekin, Begoñak bi auzo hauekin lotura guti eduki du; Iñaki Gamindek dioskunez Zollo, Zaratamo, Basauri, aipatu hiru auzo hauek, Bengoetxe, Etxebarri, Jugo, Arrigorriaga eta Ugao batera lihoazke hizkeraren aldetik; cf. Gaminde (1987, 1990 eta 1994b); alderdi historiko baterako, ikus Lakarra (1997: 140 eta 142-6).

## 4. DONOSTIA ISOGLOSEN SISTEMAREN SAREAN

Hiria zer nolako hizkuntza eremuan kokatzen den aurkezteko, hurrengo lerrootan Donostiaren inguruan gertatzen diren isoglosa garrantzizko batzuen berri dakargu. Adibideon testuingurua ez da beti isoglosa batek Donostia ondoko herri edo eremu batetik bereizten duena: franko adibidetan, isoglosa bat -edota sorta bat- hiri honetatik hurbil gertatzen dela jakiteko baliatuko ditugu ondoko datuok, Donostiaren inguruan aldeak edota hizkuntza-jauziak nontsu dauden ikusteko. Esaterako, “Errenteriatik eskuin dagoen berrikuntza bat”, “mendebaldetik Asteasuraino iristen den kontserbazio bilakabide bat”, “Donostia erdiz erdi ebakitzen duen morfologiako ezaugarri bat” erako adibideak erabiliko ditugu. Eta bestalde, egitekoaren izaerak beharturik eta zehaztasunaren mesedetan “Donostiako euskera” bezalako abstrakzioa lanerako erabiliko dela jakin arren, maiz, ezaugarriak Donostiakoak direla esatea baino egokiagoa gerta daiteke zein auzotakoak diren aipatzea; hobetsiko den

jokabidea auzoak zehaztea izanen da, beraz: Aiete, Altza, Anoeta, Antigua, Añorga, Egia, Erdigunea, Errekalde, Errando, Gros, Herrera, Ibaeta, Igeldo, Intxaurren, Kaia<sup>13</sup>, Loiola, Martutene, Parte Zaharra, Ulia...

## 4.1. Fonetika-fonologia

4.1.1. Tolosa *i* eta *u* bokalek *a* bokalari eragin hersketa gertatzen den herria dugu: Asteasun Zarautzen, Aian, Andoainen, Hernanin, Erreterian, Lezon eta Goizuetan; esate baterako, bilakabide hau ez da betetzen, ez bederen sistematikotasunez, baina badira beraren zantzu guti batzuk. Donostian ere ezaugarriak ez du agerpenik, baina auzoetan badira zantzuak, sistematikotasunetik biziki urrun daudenak; Igeldon, adibidez, *sukaldien* ‘sukaldean’, *uexe* ‘huraxe’, *zien* ‘ziren’, *ik(e/a)si* ‘ikasi’, *zauken* ‘zeukan’ bildu ditugu. Zantzu hauen jatorria eta testuinguru fonologikoa edo gramatikala xeheki aztertu behar da argi gehiago izateko.

4.1.2. Euskaraz hiatusaren laburketa gertatzen da hainbat hizkeratan *-e* eta *-o-z* bukatu hitzek mugatzailea jasotzen dutenean; adierazgarria da Orioko hurrengo adibidea: *Oriyoko karamelok merkek eta goxok* (Iturain & Loidi 1995: 9). Lasarten ere erabiltzen dira *kalen* bezalako soilketak. Ezaugarri hau ez da Donostiako euskeran betetzen eta arestiko esaera bitxi gertatzen zaio bertako edonori; salbuespena mendebaldean dago, Igeldon entzuten baitira honelako hiato laburketak: *etxen* ‘etxean’, *zuzenen* ‘zuzenean’, *bakoitzen* ‘bakoitzean’; halaz ere, absolutiboko pluralean ez da beti gertatzen: *ollaxkok* ‘oilaskoak’ dugu batetik, baina baita *emakumiak* ere, eta ez *\*emakumek*. Aipatu bilakabide laburtzailea inguruko herrietan ere gertatzen da: Beizaman. Asteasun, Andoainen, Aian, Orion edo Lasarten *kalean* > *kalen* erako garapena ageri da. Oro har Donostiatik ekialdera *-ea + C* > *-i + C* eta *-oa + C* > *-u + C* erako bilakabideak ditugu: -ekialdean ez dagoen Hernanin, esaterako, *-oan* & *-oak* > *-un* & *-uk* hersketa gertatzen da-. Pasaia Donibanen, esaterako, *-eak* > *-ik* dugu: *bestik*, Lezon bezala. Oiartzunen: *semik* & *gurasuk* adibideak bildu dira eta Erreterian *Añarbekuk*. Goizuetan ere badira honelako adibideak.

Halaz ere. *-e* eta *-o-z* bukatu hitzetan soilketarik ez badago ere. ezin ahantzi da Donostian *-iak* > *-ik* & *-ian* > *-in* eta *-uak* > *-uk* & *-uan* > *-un* erako laburketak gertatzen direla. Kaletarren artean ez dira ezezagunak Antiguan, esaterako; dakartzagun adibideak auzoetakoak dira, ordea. Añorgan bokal belarearekin bildu ditugu adibideok: *negun* ‘neguan’: *oso istimatuk*, *giñan maestrangandik*; gaineratekoak palatalari dagozkio; hona Alzako adibide bat: *danak baserrik izan tzian*; hurrengoak Añorgakoak dira: *izokik*; *belar lan guztik*; *arto zelayak ba... izugarrik izate zian*; *gezak lau baldin badia*, *ba gazik ere beste lau*; *txerriya iltze zanian txerrimunik eta emate genizkiyon*; *sartze ginan amabik arte*; hondarreko hiruok Igeldokoak dira: *kargatu arri aundik*; *bakallaua o sardinzarrak*, *danak gazi-gazik begik eta*

13.- Ez zuen ospe txarrik bertako hizkerak: Loyartek dioenez “es allí donde el vascuence no se pule. Entre los hombres de mar y las mujeres de tierra y sin Academia ni reglas, hablan el más dulce vascuence que en paraje alguno de Guipúzcoa se ha podido hablar”; cf. K. Izagirre (1998: 43).

denak erretze *tzizkizun*. Adizkietan ere soilketa da egun nagusi, baina adinekoek oraindik ere *zekiyen* 'zekien', *nekiyen* 'nekien' bezalakoak darabiltzate, Bilintxen *banekiyen* gogora dakarkigutenak; egun nagusi dabiltzanak *zekin*, *nekin* erako laguntzaile soilduak dira: F. Imazek baditu adibideak mende hasieran: *bazekin* (Zabala 1963: 65): ezaugarri honetan aldaera soildu hauen erabiltzaileak euskara batutik adinekoak baino urrunago dabilta Donostian.

4.1.3. Egungo hiztun zaharretarik landa indargabeturik dagoen arren, ezpainbikoaren epentesia Donostiako ezaugarria da eta Antiguan, Igeldon edo Añorgan, bederen, nabarmen ageri zaigu; hurrengo adibideak Añorgakoak dira: *bizituba*, *diruba*, *txikituba*, *ikulluba*, *selluba* 'zigilua'; baita pluralean ere: *negubak*. Mendebaldera adibide ugari ditugu Hernani, Urnieta, Andoain, Asteasu, Aia, Orio, Aginaga alderdi horretan. Donostiatik eskuin guti ageri da bilakabide hau egun, baina iragan mendean sortu Altzako bertsolarien lanean badira arrastoak, hala adizkietan *-nuben* 'nuen', *suben* 'zuen'- nola izenetan. Iragan mendeko Erreteriarren bertsolarien bertsoetan bakan ageri da. baina ugari Juan Kruz Zapirainen *Santa Jenobebaren bizitza* lanean; cf. Letamendia & Sagarzazu (1992: 510). Erreteriarren lan batzuetan agertzea eta beste batzuetan falta izatea literatura joeren eragina den aztertzeke dagoen gaia da. Egungo Oartzunen ez da ageri eta Bonaparteren garaian Irunen ba omen zegoen baina Hondarribian ez; zerbaitxo ageri da, ordea, aspaldiagoko Hondarribiko idazkietan. Zernahi ere den, Nafarroa Garaiko Sakana alderdia salbu, egun leku gehienetan galbidean den bilakabidea dugu hau, are Lapurdiko itsasaldean, XIX. mendean bilakabidea betetzen baitzen; egungo datuetan arrasto batzuk bildu ditu Koldo Artola dialektologialariak DonibaneLohizunen, Getarian eta Bidarten. (Irizar 1997)

4.1.4. Euskal Herriko ekialdean horren entzunak diren aferesiak, Nafarroa Garaian Gareseraino- eta iristen zirenak, Lapurdin ere ageri zaizkigu: *kartzen duna* 'ekartzen duena' bildu da Donibane Lohizunen (EAEL). Nafarroako Aranon eta Goizuetan ere entzuten dira eta Nafarroako mugan dagoen Oartzungo Ergoien auzoan ere arruntak dira: *karri*, *torri*, *man* 'eman'. *kusi*, *billi*, *kasi* 'ikasi' *san* 'esan'. *mentxe* '(h)ementxe'. *akutsi* 'erakutsi', *kuttu* 'ukitu'... (Fraile & Fraile 1996: 25). Lezo-Pasaia-Erreteria eremuaz landa, Donostiako onddo-onddoan ere erabiltzen dira ekialdeko auzoetan: *karri* Altzako adibidea da eta Ulian *torri* nahiz *etorri* entzun ditugu. Antiguan guk beti *makomia!* esaera entzun dugu heiaigorazko perpausetan errieta edo kexu giroan baina biziki markatua denez, adibide hau ez da baliagarria; ohart, dena den, erdiko bokala duela eta ez goikoa, Pasaia Donibaneko *emakome*-k bezala. Donostiatik ezker guztiz asistematikoki ageri diren aferesiaren arrasto batzuk ere badira, baina ez dirudi inolaz ere lexikalizatutako hitz aferesidunak direnik; oraingoz ongi aztertu gabeko gaia dugu hau<sup>14</sup>.

4.1.5. Donostiatik ekialdera horren hedaturik dagoen sinkopa -Lezon esaterako *(e)karko*, *botzen* 'botatzen', *pasten* edo *(i)kusk*o adibideak ditugu. eta antzera Oartzunen eta Erreteriarren ere-, ez da sumatzen geure hirian non eta ez den Altzako *botzen* adibidean.

14.- Dakartzagun aferesi adibideok bokal ondokoak dira eta ez, beraz, egokienak. Orio: *torri* & *etorri* (EHHA); Zarautz: *zate zan* 'izaten zen' *zate xian*, *torri zian* (EAEL); Getaria: *nóla saten da?*, *sango* 'izango'; Tolosa: *suba mateko* (EHHA).



4.1.6. Hitzaren hasierako *e*-herstea arrunta da euskaraz ondoan *-u*-duen testuinguru batzuetan: geure eremuan Pasaia Donibaneko *iruzki* 'eguzkia'. *iguarri* 'eguberriak' eta *iruki* 'eduki' adibideak aipa daitezke, eta baita *izautu* 'ezagutu' ere (EHHA) - bada Lezon *ezautu* ere, ordea-. Itxura guztien arabera Donostian ere izan da bilakabide honen arrasto zenbait hitz batean bederen: egun *iuki* entzun daiteke Ibaetan nahiz Aieten, eta arrunta da *iruki* idazle zaharren artean: Etxagaraik, Bilintxek, Soroak *-iduki*-rekin batean- eta Barriolak bederen erabili dute; P. Artolak *eruki* darabil.

4.1.7. Hitz bukaeran *-o* eta *-e* ematen dituzten *-u* eta *-i*-ren irekiera ezaguna da Nafarroa Garaiko eremu batzuetan: Basaburua eta Ultzamaz gain Bortzirietan ere badira honelako adibideak; Goizuetan ere bada *u > o* aldaketa hitzaren barrenean nahiz bukaeran (Zubiri & Perurena 1998: 32). Ageri denez, *-u > -o* bilakabidea Gipuzkoako Pasaiaraino iristen da: *diro* 'dirua' (EHHA): Lezon ere bada: *liburotik* & *libru* (Salaberria & Pontesta 1991). Oiartzunen ere ezaguna da hau (Fraile & Fraile 1996: 36): *diro*, *soño*, *porro* - baita hitzaren barrenean edo hasieran ere: *sokalde*, *xolo*, *okendu*, *ora* 'hura', *eskoya* 'eskuina'; Pasaia Donibanen, esaterako *soittu* 'zuritu' eta *eortzi* 'igurtzi' erabiltzen dira (EHHA)-. Donostiako euskeran. ordea, ez dago *-u > -o* aldaketaren inolako arrastorik.

4.1.8. Gipuzkoan guztiz arrunta da *t* kontsonantearen bustidura automatikoa *-it-* testuinguruan; hurrengo herrietan bederen gertatzen da: Getaria -- *tx*-eran gertatu ere-, Aia, Asteasu, Tolosa. Andoain, Lisurbil. Hernani, Lasarte, Lezo. Errenteria, Oiartzun, Arano, Goizueta. Pasaian -oro har dihardute egileek Pasaiaz, ez dute zehazten hiruretarik zeinetan-adibide zenbait ageri da, baina bustidura ez da batere arrunta (Elortegi et alii 1997: 43): Pasaia San Pedroko eta Donibaneko adizki batzuetan bederen (Irizar 1991: 77) badirudi ez dagoela bustidurarik eta Izaskun Etxebestek dioskunez Pasaia Donibanen arrantzaleen artean ez da entzuten. Idatzi da (Irizar 1991) Donostian, Altzan eta Añorgan bilakabide hau ez dagoela. Donostian kaletarrek ez dute *-it-* bustidura automatikorik egiten, baina Añorgan iduri luke badela, eta baita Altzan ere. Añorgako adibideetan ikusten da ez dela bilakabide sistematikoa: *iten* 'egiten', *eraiten* 'ereiten', *zitun* 'zituen', *dituk*, *pitarra* 'sagardo urduna'; halaz ere automatikoak diruditen *oittura* eta *itz eitte* 'hitz egite' entzun ditugu, eta baita *atta* 'aita' eta *attakin* ere, baina azken bi hauek adierazgarriak izan daitezke; adierazgarriak dira zalantzarik gabe auzo honetan entzun ditugun *punttua* 'sagardoa ondurik dagoen unea' eta *maittiak*. Zernahi ere den, adierazgarri diruditen Añorgako adibide hauek ez dirudi donostiar kaletarren artean entzuten direnik.

Argigarria da Gipuzkoako hizkeraren berezitasunak ongi ezagutzen dituen Euskaltzaindiko EHHako lankide Izaskun Etxebeste donostiarrek zioskuna: Orio eta Zarauzko mugan sortu emazteki bat ezagutzen du, Donostiara ezkondu zena. Emazteki horrek *ditu* saileko aldaera bustigabeak darabilta eta ez du asimilazio automatikorik egiten, baina bai adierazgarria *atta* edo *attona* bezalako hitzetan; oso zakar gertatzen bide zaio bi hitz \* horietako donostiarren *-it-* hori eta bigarren eta hirugarren pertsona pluraleko morfemako *-te* berarentzat berriak sortzen dion irudi zakarrarekin bateratzen du alderdi inpresionistatik; emaztekiak eginahalak egin ditu seme-alabei *atta* esanarazten, baina ez du seme-alaba donostiarrek honelakorik ahoskatzea inondik inora lortu. EHU-ko M. Lourdes Oñederra fonologialariari Gasteizko Filologia Fakultateko 1983ko eskoletan entzun diogu Astigarragatik tratura Donostiara zihoazen baserritarrek trolebusera igo orduko, beren

mintzoko *-ñ*-ak eta *-ll*-ak bai, gordetzen zituztela, baina *-tt*-ak *-it*- despalatalizatu ohi zituztela; cf. Oñederra (1986).

4.1.9. Ez dago guztiz garbi 'i + g' loturak bustidura sortzeko joera norainokoa duen Donostian: esaterako, "igo" *iy*o esaten da bai, baina Hernanin bildu den *iyurtzi* adibidea (EHHA) *igurtzi* entzuten da Donostian egun<sup>15</sup> Andoainen, bestalde, *zayula* 'zaigula' bildu da oraintsu (EAEL). Guk dakigula, egungo Donostian *\*iyurtzi* edo *\*zayula* bezalako adibiderik ez da ageri.

4.1.10. *-ind*- eta *-ild*- taldeen bustidura adibiderik ez da falta Donostiatik hurbil: mendebaldetik, *indarrik* & *indarra* pareta bildu da Aian (EHHA)<sup>16</sup> eta ekialdera Errenterian *izañu* "izandu" pleonasmoa oinarri harturik, (EAEL, 130)-. Irunen, bestalde, *billu* 'bildu' dago (Alzola 1994: 102); *billu* edo *billots* ditugu Oiartzunen. Guk dakigula Donostian ez dago bustidura mota honen arrastorik.

4.1.11. Txistukari apikari afrikatua nekez entzun daiteke egun donostiar kaletarren ahoan: hurrengo herrietan, ordea, *ts* hotsa entzuten da: Asteasun, Aian, Orion, Aginagan, Usurbilen, Lasarten, Hernanin, Lezon, Oiartzunen, Aranon eta Goizuetan. Pasaian ia ez dago *ts*-rik, gutxi batzuk baizik (Elortegi et alii 1997: 44). Donostian egoera konplexua da. Esaterako, *itzuzki* 'itsuski'. *utza* 'hutsa' edo *itxuba* 'itsua' entzun ditugu guk Antiguan eta *itzazuan* edo *ausi* 'hautsi' Parte Zaharrean. Ibaetan uzkurxe ageri da: *utsik*, baina baita *itzaso* bizkarkariduna ere. Igeldon harroago dabil, inolaz ere: *igualtsuba*, *autsa*, *utsa*, *eantsi*... Ez dirudi kaletarren arteko nahastea oraingoa denik. M Soroaren 1886ko antzerki batean <*itsasora*> aldaeraz gain <*itzazuan*> ageri da, eta baita hurrengo bi hauek ere: <*itzuziya*>, <*baratzuriyak*>.

4.1.12. Berebat, txistukari igurzkarrien bereizketa ere ez da aspaldi honetan betetzen donostiar kaletarren artean: *zoka loriya* 'soka lodia' (Kaia); *uzaya* 'usaina', *bazarriya*, *zemiak* 'semeak', *nauzik* 'nagusiak' (Antigua); *:zald* 'saldu'. *ezango* 'esango', *bazerri*, *zaarra* 'sagarra', *Zalamanka* 'Salamanca' (Aiete); *zilikosis*, *zaardoteiya*, *bazarriya*, *zartu\** 'sartu', *zegi aurrea*, *azi* 'hasi', *Uzurbilkua* (Igeldo); *bazerriko* & *baserriyantzako* (Altza). M. Soroaren 1886ko adibideak ere adierazgarriak dira eta norabide berekoak gainera: <*zamurtuko*>, <*azarre*>, <*azarratu*>, <*zaltzlliac*> 'saltzaileak', <*zartzen*> 'sartzen'. Ezaguna da hau guztia

15.- Litekeena da *iy*o ez izatea *igo*-ren bustiduratik sortua, *igo* > *io* > *iy*o bezalako zerbait baizik. Donostiako antzerki lanetan nahiz 1761eko gutun batean <*bigar*>- hiperzuzenketa aurkitzea honekin loturik egon daiteke; ez da ahanzi behar sabaikari epentetikoaren erabilera zaharra dela -J. V. Etxagaralk *biyurtzen* darabil (1964: 74)- eta ezartze eremua ere zabala dela. V. Iraolak *Zurriyola* idazten du: *Bigar Zurriyolan bilatuko naute itua* (1894: 24). Aitor dezagun, halaz ere, V. Iraolaren obran lan batzuk zinez urruntzen direla Donostiako hizkeratik: aldeia dago *IONenzaro gaba!* (1894) antzerki lanetik *Gabontan* izenekora (1898). Iraolaren lanean Donostiatik ekialdera entzun daitezkeen hizkuntza-aldaerak sumatzen dira; cf. K. Izagirre (1998), non Pasaiaiko eren agerpena aipatzen den: *diozkatan* (1898: 30), *okabilla* 'ukabila' (1898: 32) edo *ichitzen* (1894: 18) bezalako adibideetan nabarmena da.

16.- Ez dakigu zenbaterainoko agerpena duten *inddar* bezalako aldaera bustiek Aian, ez dakigu dakargun adibideak zenbateraino ordezkatzeko duen Aiako jardun egunerokoa.

Donostia ondoko Pasaia Donibanen. esaterako: *ezate* 'you' 'esaten diogu', *azkotan* 'askotan', *zartzeko* 'sartzeko' (EHHA).

4.1.13. Adizkietako *n*- morfemak aitzinetik ez partikula daramanean, inguruko herrietan *en*- egiteko joera dago txistukaria galdurik: donostiar kaletarren artean bederen ez da entzuten. Esaterako *en*- ageri zaigu, Andoainen, Aginagan, Lasarten, Hernanin, Pasaia San Pedron eta Donibanen nahiz Aranon. Beste behin ere, salbuespenak auzoetan ageri zaskigu: *enun* 'ez nuen' dago Donostiako Ulian; Soroaren lanean ere bada *enaiz*<sup>17</sup>. Berebat, 'ez + g' egituran *ezg*- da Donostiako kaletarren erabilpena, Antiguan guk beti entzun ohi dugunez, baina *ezkenun* 'ez genuen' bildu dugu Ulian eta *ezkendun* Ibaetan; Lasarten, esaterako, *ezkea* bildu da: cf. Labaka et alii (1996: 13).

## 4.2. Izenaren morfologia

4.2.1. Ipar Euskal Herrian, eta baita ondoko Nafarroako Bortzirietan ere, ondoko kontsonante sudurkariaren testuinguruan hertsitako *o > u* bilakabidea ageri da erakusleetan. Donostiatik eskuin ez dakigu non hasten diren *untan* 'honetan' edo *unek* 'honek' erako erakusleak. Oiartzunen badirudi ez direla erabiltzen: *onek, onei, ontan...* (Fraile & Fraile 1996: 81). Errenterian, ordea, *barriyu untan* adibidea ageri da EAEL-n (130), baina hor aitzinean dagoen bokalak asimilaturik egon daiteke. Pasaia *ununtzo* 'honantzago' adi bidean ondoko bokalaren asimilazioa egon daiteke eta iduria da Lezoko ondoko adibidea ere: *galdu du ui* 'hori': ez da Lezoko "ui" bakarra: *kostunbre ui dakar* EAEL-k eta baita *oik* arrunta ere: *kostunbre oik*. Ez dakigu Lezon EAEL-n bildu diren *gui denboan* 'gure denboran' eta *aldi atikan* 'alde batetik' bokal igoerak ere bilakabide honen inguruan kokatu behar ote diren, baina iduri luke ezetz. Batera nahiz bestera dela, Donostian ez dago *u-z* hasitako erakuslerik ezta honelako *e- > i* bilakabiderako joerarik ez baldin bada erakusleen aitzinetik *etxi oi* 'etxe hori' erako ohikoetan.

4.2.2. Oro har iduri luke erakusle pluraletan inguruko herrietan baino aldaera osoagoak ageri zaizkigula Donostian: *abek & obek / oyek / ayek* dira donostiar kaletarren artean entzun daitezkeen aldaerak. Donostiatik ekialdera, laburtze nabarmena ageri da Oiartzungo adibideetan: *ok / oik / aik* (Fraile & Fraile 1996: 82). Mendebaldetik Oriok Donostiaren tankera hartzen du, baina herri honetan aldaera osoez gain laburrak ere erabiltzen dira: *abek & obek / oyek & oik / ayek & aik*. Lasarten lehen graduan *ok* ageri zaigu *auk*-ekin batean; aldaera osoagoak eta laburragoak batera ditugu Lasarten bigarren eta hirugarren graduan ere: *oik & oyek aik & ayek*. Hernanin ere *oik* eta *aik* entzun daitezke. M. Soroa antzerki idazle donostiarraren 1886ko lan batean ere ageri da lehen graduko *ok*, baina andre goieritar bat karakterizatzeke egina du. Donostian *oik* eta *uik* erabiltzen ez direla esatea

17. *Baratzan* lanean (1886) elkar hizketa batzuk gertatzen dira jaun hiritarraren eta baserritarren artean eta karakterizazio zerbait sumatzen da hizkeran: hiritarrak *kafia* darabil baina baserritarren ahoan *kapia* eta *kapeteia* 'kafeteria' ezartzen ditu Soroak, eta baita *enaiz*: 'ez naiz' aldaera ere (*Euskal-Erria* 15, 1886: 417). Hernanin hurrengoak bildu ditu oraintsu Izaskun Etxebestek: *perin* 'ferian', *pijo* 'fijo\*', *paltak* 'faltak', *apai* 'afari' eta *kapesnia* 'kafetesnea'.

gezurra esatea litzateke ordea: kaletarren artean ez dira entzuten, baina *oik* bildu dugu guk Aieten eta Igeldon; Altzan eta Ulian bi aldaerak entzun ditugu, *oyek* eta *oik*. Aldiz, *oyek* jaso dugu Antiguan, Kaian eta Parte Zaharrean. Hirugarren gradukoan ere berdin: aik aldaera ageri da Ulian, Aieten, Errandon, Igeldon eta Añorgan.

4.2.3. Aitzineko norabidean gertatzen den bokal asimilazioa ageri da erakusleetan Donostiaren inguruko herrietan: *oloko* edo *nolokuak* ageri zaizkigu Oiartzunen, eta Izaskun Etxebestek *onoko* bildu du Lasarten eta *olokon* bat Hernanin - *olakoxe* aldaerarekin batean; P. Donibanen *olako* bildu da (EHHA). Donostian ez da ezaguna bilakabide hau baina badira adi bideak Igeldon: *oloko*.

4.2.4. Konplexua da izenordain hanpatuen errealitatea Donostian eta inguruetan aztertzea; egungo datuez gain iraganekoak aintzat hartzea ezinbestekoa da ordea, eta idazleren batek emandako berriak ongi etorriak dira: “nor: neu, neu, kost’aldian esaten duten bezela” pasartea ageri da M. Soroaren 1886ko lan batean: berak *geonec* edo *zeroni* zerabiltzan, eta baita lehen pertsona singularreko *nerau* aldaera ere (“Baratzan”, Euskal-Eria 15. 1886: 191), egungo hizkeran Donostian inondik inora ageri ez dena. Pluralean *geroni* dakar J. V. Etxagaraik. Aldaera hauek bildu ditugu guk Donostiako egungo mintzoan: *neoni* (Kaia); *beorri* ‘berori’ eta *geronek* (Añorga); *geonen* (Igeldo). Ikusten denez datibo izatetik absolutibo izatera iragan diren aldaerak ditugu. Orion gauzak aski antzera dabilzala dirudi: *neoni*, *erorri*, *geoni*, *zeorri*... ageri dira, baina Lasarten dator desberdintasuna, pluraleko lehen pertsonan hain zuzen: *neoni*, *eorri*, *geok*. Pasaian Donostiaren tankera sumatzen da: *geonek*, baina Oiartzunen *geok* dago *zeorrek* ‘zeuk’ eta *zeonek* ‘zeuk’ aldaerarekin batera (Fraile & Fraile 1996: 92). Aranon ere *geok* dakar EAEL-k (159) eta *gérak* nahiz *gérok* dira Goizuetan erabiltzen direnak (Zubiri & Perurena 1998: 57).

4.2.5. Pluraleko datiboaren aldetik ere badirudi egoera nahasixea dela; konplexua bai bederen: Euskal Herriko erdialdeko hizkera bati dagokion bezala *-ai* da atzizkia, nahiz *-ei*-ren bat ere ageri den: *-airi* eta *-aidi* pleonasmok ere baditugu Donostian, inguruko herrietan bezala. Ezaguna denez. Gaintxurizketa bitartean ez da *-aki* era ageri: *gizonaki*, *lagunaki*.

4.2.6. Destinatiboko atzizkiari dagokionez, Donostian oro har *-tzako* atzizkia nagusi dela nabarmen utzi beharra dago: *-tzat* aldaera guztiz bazterrekoa da, ia ez da inoiz entzuten. Bada bestalde, aipatu beharreko laburdura bat: beharbada *neretzako* / *neretzat* > *neetzako* / *neetzat* > *netzako* / *netzat* soilketan oinarriturik *zutzako* / *zutzat* erako aldaerak sortu dira. Uste dugunez hau Donostiako bilakabidea da: guk Antiguan entzuna dugu eta F. Imazek ere *gutzat* dakar (Zabala 1963: 26); aldameneko herrietako lanabesetan, Hernanin sozietiboko *gukin* ‘gurekin’ ageri da ordea; zernahi ere den, inguruko herrietan aztarrika aritzea komeni da baieztapen ziurragoak egin ahal izateko.

Esan dezagun, bestalde, administrazioz Erreteria den Argorri auzora orduko *-tako* atzizkia ageri zaigula, Nafarroako eta Lapurdiko antzera: *béandakó* (EAEL, 130). Oiartzunen, oraino, *-tzat* eta *-tzako* ditugu (Fraile & Fraile 1996: 77).

4.2.7. Ablatiboko *-ti* atzizki zaharra itxuraz lexikalizaturik ageri den aldaerak suma daitezke Donostia inguruko herri batzuetan; guk Donostian ez dugu *-tik* & *-tikan* baizik entzun: Goizuetan *-ti* atzizkia: *emendi* adizlagunean ageri da (EHHA) eta baita Erreterian ere: *goróti*, *eméndi* (EAEL, 130).

Bada, bestalde, desberdintasun bat gehiago kasu marka honen aldetik Donostiatik eskuin; dagoeneko Larramendik Hondarribirako dakar ezaugarri hau bere *Corografía*-n (1969: 301). Pasaia Donibanen *-tikanen* & *-dikanen* aldaera ageri da ablatiboan; are kausatiboraino iritsirik: *zeatikanen*. Erreterian ere ezaguna da: *-tik* & *-tikan* & *-tikanen* atzizkiak ditugu (Mitxelena 1950: 91).

4.2.8. Ezaguna da Euskal Herriko ekialdeko eremuetan *-ko* atzizkiak xedezko perpausetan edo “*-lako*” erako kausazkoetan kontsonante txistukari bat bereganaturik eranskina har dezakeela. Donostiatik eskuin ere ageri da eraugarri hau, eta agerpenaren maiztasuna haziz doa Oiartzun, Erreteria eta Lezotik ekialdera Hondarribian barrena goazen ber; Goizuetan eta Bortzirietan, esaterako. ohikoa da *-koz* & *-(e)lako*z (Zuazo 1997: 401 eta 421). Oiartzunen *-koz* dugu: *artzen asi nintzanekoz*, *nik i[g]arri niyon* (Fraile & Fraile 1996: 138). Zenbait hitzunek kausazko *-(e)lako*z erabiltzen dute Erreterian, nahiz *-(e)lako* erabiliagoa den; Lezon ere bi atzizkiak entzun daitezke. Hondarribian ere, Txomin Sagarzazuren adibideek erakusten dutenez, *-kotz* eta *-kos* arruntak dira: *gérokotz*, *órdukos*, *nerétzakos*, *órtakotz*...

4.2.9. Nafarroa Garaian ohi denez eta Donostian ez bezala Oiartzunen eta Lezon *-keta(r)*i atzizkia ageri zaigu garraioaren adierarekin: *esneketaya*, *egurketaya*, *bazkaiketaya*, *zezenketaya* (Elortegi et alii 1997: 70).

### 4.3. Aditz nagusiaren morfologia

4.3.1. Kontsonante sudurkarian bukatzen diren partizipioei ahostundu gabeko *-ta* atzizkia erants dakieke Donostiatik eskuin dauden herrietan: Pasaia Donibanen *intako* ‘egindako’ edo *esantakua* adibideak ditugu (EHHA) eta Lezon, berriz, *inta*. Hondarribian ere honelakoak entzuten dira egun. Egungo mintzoan Donostian entzuten ez diren arren, garai bateko idazleen artean ezagunak dira honelako aldaerak: M. Soroak *emanta*, *izanta* eta *esantako* adibideak dakartza 1886ko *Baratzan* lanean; Bilintxek *eginta* darabil.

4.3.2. Ipar-mendebaldetik Urolan barrena Zarautzeraino iristen dira *-iu* eta *-au* aldaerak partizipioko atzizkian: *aukerau*, *barkau*, *eskau*, *gerau sorau* (Zuazo 1998: 207).

4.3.3. Ez da ezezaguna *-ki* aditz atzizkia Donostian *-A*. Anabitartek badarabil- baina agerpena “izan” aditzari mugaturik dagoela sumatzen dugu guk eta Pello Zubiriak dioskunez antzera gertatzen da mendebaldetik Aginagan ere: *izaki* adibideaz gain guretzat ez da guztiz garbi dagoen gauza zenbateraino erabiltzen den beste aditzetan. Lezon arruntagoa da egitura: *eta ayek tokan tokan aiki*, *ayen atta an izaki sagardoteiyan* (Salaberria & Pontesta 1991: 34-5); Oiartzunen ere bada: Erreterian pleonasmok eta guzti ageri zaigu bilakabidea: *eokiki*, *juakiki*, *izakiki*.

4.3.4. Etorkizuneko atzizkia Gipuzkoako ohiko *-ko* / *-go* da beti Donostian; eguzki aldera abiatuak *-en* ez dugu Goizuetaraino aurkitzen baina Larrarnendik *Corografía*-n dakarrenez (1969: 301 ) Oiartzunen *esain*, *emain* nahiz *esanen* eta *emanen* erako aldaerak erabiltzen ziren.

4.3.5. Aditz izenak inesiboko atzizkia hartzean *-sitzen* & *-zitzen* entzuten da *-sten* *-zten* eren ordain 'txistukaria + -i' bukaera duten bi silabako aditzetan; Bortzirietan ezaguna da hau *asitzen* 'hasten' edo *utzitzen* 'uzten' bezalako adibideetan; Lezoraino bederen iristen da bilakabidea: *utzitzen* (Salaberria & Pontesta 1991: 33); Pasaia Donibanen ere bada bilakabidea: *asitzen*, *itxitzen* (EHHA). Donostian *uzten*, *asten*, *azten* 'hazten' erakoak dira erabiltzen direnak, baina *utzitzen* ageri zaigu behin M. Soroaren *Baratzan* lanean.

## 4.4. Aditz laguntzailearen morfologia

4.4.1. Nafarroa Garaiko ezaugarritzat hartu ohi da bigarren pertsona singularreko adizkietan *y-* morfema agertzea; Oiartzungo hurraren adi bideak lekuko dira: *(y)a(i)z* 'haiz', *yai* 'hadi', *yo* 'hago', *yua* 'hoa'. Erreteriarra orduko bada ezaugarri hau eta baita Goizuetan ere, baina ez da hortik ezker hedatzen eta guztiz ezezaguna da Donostiako mintzoan.

4.4.2. Bizkaiko, Nafarroa Garaiko eta Lapurdiko -hondarreko honetan *zare* & *gare* aldaerekin batera- ezaugarri dira *ga(r)a* & *za(r)a* adizkiak. Gipuzkoan *ge(r)a* & *ze(r)a* dira arruntenak. Halaz ere, Donostiatik ekialdera, *ga(ra)* / *ge(r)a* eta *za(ra)* / *ze(r)a* adizkien arteko lehia dago Erreterian, Oiartzunen, Hondarribian eta Irunen.

4.4.3. Ezaguna da *naz* 'naiz' aldaera Donostiatik ekialdera dauden herrietan; *naiz* aldaerarekiko lehian baldin bada ere, P. Donibanen, Lezon. Erreterian eta Oiartzunen *naz* & *nas* ageri zaigu. Adizki hau Nafarroako Arano eta Arantzara hedatzen da, baina ez da Goizuetan ageri (Zubiri & Perurena 1998: 128), ezta Irunen eta Hondarribian ere.

4.4.4. "Izan" aditzeko iraganeko adizkietan *zen* / *zan* edo *ni(n)tzen* / *ni(n)tzan* ereduak bereizten dituen isoglosaren egitura konplexua da: Donostian *-an* da eredu egungo "izan" aditzean: *nitzan*, *ziñan*, *zan*; Bonaparteren garaian ere *zan* bildu zen, baina "edun" aditzeko aldaeretan *-en* da Bonaparteren garaiko morfema iraganean: *nuen*, *zenduen*, *zuen* eta *genduen*; egun behintzat, *gendun* soildua entzuten da Donostian. Pasaia San Pedron eta Donibanen bietarik ageri dira gaurko egunean. Oiartzunen *zen* dago nagusi, baina gero *nintzan*, *giñan* aldaerak ageri dira lehen pertsonan. Lezon, Pasaian gertatzen denaren antzera, *zen*, *nintzen* eta *(t)zien* 'ziren' aidaerez landa bada *-an* ereduko *zian* 'ziren' ere. Erreteriarakoak dira txandaketaren berri argi erakusten duten adibideok: *zen* / *zan*, *nintzen* / *nintzarian*, *giñen* / *giñan*.

Euskal Herria erdiz erdi ebakitzen du *-ala* & *-an* / *-ela* & *-en* atzizkien isoglosak: zalantzarik gabe Donostia mendebaldeko sailean gelditzen da *-ala* eta *-an* aldaerak lekuko. Hiritik ekialdera egoera ez da guztiz garbia (cf. Mitxelena 1950: 94)<sup>18</sup>. baina oro har, eta *-an* & *-ala* lehian duen arren. *-en* & *-ela* dagoela esan daiteke. Usurbilkoak dira *eztetala* eta

18.- Siempre había pensado -y me cuesta dejar de creerlo- que la mezcla de alto- navarro y guipuzcoano que se observa en el habla de R[entería] se explicaba por una penetración continua de formas guipuzcoanas en el primitivo fondo navarro. Esto es cierto, sin duda en nuestros días: *den* y *zen*, p. ej., tienden a ser sustituidos por *dan* y *zan*. Pero en frases hechas encuentro, como únicas formas, *ai dainian* 'al parecer' y *zana* 'el difunto' (yo solo muy tarde he llegado a darme cuenta de que *zana* es *zena*) que hablan muy poco en favor de mis presupuestos teóricos.

*nintzala* (EAEL); hurrengo adibideak Donostia aldean ohikoa den hiatus soilketaren emaitza dira: *emateula* Hernanikoa (EAEL, 125) eta *zittula* Erreterriakoa (EAEL, 130)<sup>19</sup>. Lezokoak dira hurrengo adibideak: *dien* ‘diren’ (EAEL); *nittuen* ‘zeharg’, *nitzala* (Salaberria & Pontesta 1991); hona Aranokoak: *al dena* & *nola dan* (EAEL, 159); Goizuetakoa da *zer dan* (EAEL).

4.4.5.- Lasarte-Usurbil alderditik ezker eta Hernani aldean bederen nori saileko morfema plurala den -z- txistukari bizkarkaria bustitzen da: *dixka* & *dizka* ‘dizkio’ *zaizka* & *zaixka* ‘zaizkio’, *dixkiu* ‘dizkigu’ (Lasarte); *dixkizut* (Usurbil): *dixka* ‘dizkio’ (Aginaga); *zaixkit* (Orio). Hernanin *sartze xaixka* ‘sartzen zaizkio’ eta *kentze xixkatela* ‘kentzen zizkiotela’ bildu ditu Izaskun Etxebestek (EHHA). Ekialdera bustidurarik gabeko *zizkan* dugu Donostian eta *siskan* bildu da P. Donibanen (EHHA). Hikako adizkietan ere gertatzen da aipatu bilakabidea: *zaxkiak* (Usurbil); *zaixkiak* (Orio) / *zaizki(d)ak* (Zubieta, Lasarte, Igeldo); *[d]ixkiyau* ‘dizkiagu’ (Hernani, EHHA). Bustidura ezaugarri hau Donostian gertatzen ez dela esan dugu baina salbuespenak daude, auzoetan: Igeldon, esaterako, *dizkizut* erabiltzen da, eta Usurbilen, berriz, *dixkizut* halaz ere, *zizkien* aldaeraz gain *zixkien* ‘zizkioten’ ere txandaketan ageri zaigu Igeldo auzoan.

4.4.6. “Edun” aditzaren adizkietan *det* eta *dut* aldaeren arteko lehia dago Donostiatik ekialdera berehala: Pasaia San Pedron *dezu* ageri da eta Donibanen *dek* eta *deu*, esate batera: Lezon, ordea, *duzu* dago eta Erreterian ere *duzu* baina -e- dunekin lehian.

4.4.7. Hedadura handia duenez garrantzizko ezaugarria da hirugarren pertsona pluraleko ergatiboko eta datiboko aldaeran dagoen -te / -e bereizketa. Gipuzkoako eremu handi batean -Deba ibarrean, Urolaldean, Goierriin, Tolosaldean- -e atzizkia dago, Nafarroako mugaraino: Hernanin, esaterako, -e dago -te- rekin batean, Aranon bezala (Zubiri & Perurena 1998: 84), baina Goizuetara orduko -te daukagu. Lasarte, Usurbil eta Orio ere -e erabiltzen den herriak dira; Orion zaharrek badarabilte *dute* aldaera ere. Bestaldera Donostia, Pasaia San Pedro, Donibane, Lezo, Erreterria, Oiartzun eta Goizuetara gelditzen dira: hauetan -te da atzizkia. Baina Donostia ez da eremu homogeneous: Antiguaraino -te dagoen arren, mendebaldera -e morfema agertzen hasten zaigu. Ibaetan eta Igeldon bildu ditugun adizkiak lekuko. Añorgan esaterako, *(d)ue* ‘dute’, *zuen* ‘zuten’ eta *(d)izue* ‘dizute’ bildu ditugu, baina baita *ziyoten* ‘zioten’ eta *zezkatek* ‘zeuzkatek’ ere; ezagun duenez, adizki batzuetan -e morfema ageri da Añorgan eta beste batzuetan -te.

4.4.8. Nor Nork sailean irla nabarmen bat iduri du dagoela “edun” aditzaren iraganeko aldaeretan lehen pertsonako Nor morfeman: *niñ-* legoke alderdi batetik (Donostia, Hernani, Igeldo, Zubieta, Lasarte, Usurbil, Erreterria, Lezo, Oiartzun) eta *nind-* beste batetik (Pasaia): *niñuken*, *niñunan*, *niñun*, *niñuzuten* ditugu Donostian: Pasaian, berriz: *ninduken*, *nindunen*, *ninduen*, *ninduzuten*. Pasaiaiko datuok ez dakigu zehazki nongoak diren; G. Bähr hizkuntzalari legazpiarrak bildu zituen Azkueren *Erizkizundi*-rako XX. mendeko bigarren hamarkadan.

4.4.9. Donostiatik ekialdera datiboko bigarren pertsonaraino iristen dira Nor Nork-eko aldaerak, beste hizkeretan ohiz Nor Nori Nork direnak: honela. *kantatuko zattut* edo

19.- Otaegik Bonaparterri diotsonagatik, soilketa hori XIX. mendean hedatu zen; cf. F. Altuna (1995: 233- 4).

*axe[r]jyak iesi ingo zattu* bezalakoak entzun daitezke Oiartzunen, Bortzirietan-eta arruntak direnak; lehen pertsona pluralekoetara ere iristen bide dira: cf. Zuazo (1997: 413) eta Fraile & Fraile (1996: 116). Donostiako ohiko *esan nau* ‘esan dit’, *eman naskitzu giltzak* ‘eman iezazkidazu giltzak’ bezalakoak aspalditik daude salaturik, baina ez dago hirian \**esan zaitut* erakoen arrastorik, singularreko lehen pertsonako datibora mugatzen da bilakabidea.

4.4.10. Nor Nori Nork saileko gertakari analogiko arras hedatua da *dizkio* > *ditio* aldaketa pluraleko adizkietan, gero *tio* & *ttio* erako aldaerak eman dituena: Nafarroa Garaiko erdialdean ezaguna da eta Itzarbeibarko Garesko hizkeraraino iritsi zen. Eskuztatu ditugun lanak lekuko ez dirudi Gipuzkoako ipar-ekialde guztira hedatu denik: ez bederen Lezo-Errenteria-Oiartzun aldera ezta Nafarroa Garaiko mugako Aranora ere. Goizuetan, ordea, badira honelako aldaerak: *ttit* ‘dizkit’, *ttio* ‘dizkio’, *ttiu* ‘dizkigu’ (Zubiri & Perurena 1998: 137). eta baita Irunen eta Hondarribian ere. Espero zitekeenez, berri kuntza honek ez du Donostia barrenean harrapatu.

4.4.11. Donostiako testu zaharretan bezala, *diozka* ‘dizkiot’ eta *niozkan* ‘nizkion’ aldaerak bildu zituen Pasaian G. Bähr hizkuntzalariak Nor Nori Nork sailean XX. mendearen hasieran. Donostian ere bada *-ka* morfema datiboa hirugarren pertsonarako eta bertako zerrendetan *dizkat* eta *nizkan* ageri dira (Irizar 1991) eta *dizkiyot* eta *dizkat* edo *nizkiyon* eta *nizkan* dira hirian guk beti entzun ditugunak. Berebat, Pasaia Donibanen *zayoskak* & *zaioskan* aldaerak ageri dira Nor Nori aditz saileko pluralean, baina Donostian *zaizkiyo* edo *zaizka* erakoak dira guk beti entzun ditugunak.

4.4.12. Adizki laguntzaileetako *de-* eta *di-* atala ez da sekula galtzen Donostiako hizkeran. Nafarroako Bortzirietan eta Goizuetan ezaguna da bilakabide hau: *emain zut* ‘emanen dizut’ (Goizueta); Errenteriako Zamalbiden ere ageri zaigu: *esantzu* ‘esan duzu’, *ikusit altzu* ‘ikusit al duzu’; Lezokoa da *ezut* ‘ez dizut’ (EAEL); herri honetakoa berekoa da “eduki” aditzaren aldaera trinko hau: *goguan kat* ‘gogoan daukat’. Metatatesi bidezko aldaerak ditugu *di-* aldatu duten hurrengoak Errenteriako Zamalbiden eta Lezon: *emaintzut* ‘eman dizut’, *esaintzut* ‘esan dizut’ (Irizar 1992: 521).

4.4.13. Nor Nori Nork aditz sailean *geni-* > *gini-* & *giñi-* gibelerateko asimilazioaren isoglosa Donostiaraino bereraino iristen da. Hiritik ezkerrera hedatzen dira *giñ-* & *gin-* erako adizkiak: *ginizun*, *giñikan* (Añorga); *giñizun* (Usurbil, Igeldo, Orio); *giñizun*, *ginizun*, *giniyon* (Hernani). Ez dira aldaera bakarrak; esate batera, *geñizun* ere bada Usurbilen. Donostian eta handik eskuin *gen-* dago: *geniyon* eta *genizun* bildu dira Pasaian eta Donostian; guk Nor Nori sailean *giñitun* ‘genituen’ bildu dugu Antiguán, baina lekukoaren arbaso igeldoar-usurbildarretan egon daiteke argia. Lapurdiko itsasaldean berriz ageri dira ekialdera *ziñion*, *giñion*, *ziñioten* erako adizkiak (Irizar 1997: 251).

4.4.14. Donostian ez da ezezaguna “egon” aditzaren aldaera trinkoetan pluraleko *-z* morfema agertzea: *txiki-txikitik doste* eta *seosten* adizkiak entzun ditugu guk Antiguán *daude* eta *zeuden* & *zauden* aldaerekin batean, baina beti ere *-z* “egon” aditzera eta pluraleko hirugarren pertsonaren testuingurura mugaturik; inoiz “izan” aditzeko bigarren pertsonako *seaste* ‘zarete’ bezalako zerbait entzutean, berehala pentsatu ohi du donostiarrek hizketalaguna errenteriar bat edo izan daitekeela. Honako adibideek ez dute zalantzarako aukerarik uzten: *seaste* & *siñasten* (Pasaia Donibane); *zeazte* & *zerazte*



(Erreterria); *zazte & zĩñazten* (Lezo); *zazte & zeazte* (Oartzun); *zaazte* (Irun). Hondarribian ere *saste* entzuten da arrantzaleen auzoan. Badira halaz ere *zeate & zerate* sailekoak Erreterrian eta Irunen ere. M. Soroa donostiarraren *Anton Caicu* antzerki lanean egungo belarriari bitxi gertatzen zaizkion *zeazte* eta <*ciñasten*> aldaerak ageri dira <*ciñaten*>-ekin batera. Ekialdera, ezaguna denez, iraganeko aldaeretan *ziñeten* erakoak (Hendaia, Donibane- Lohizune) erabiltzen dira Lapurdin eta Nafarroa Beherean.

“Egon” aditzaren aldaeretara itzulirik, eman ditzagun Donostia inguruko adibide batzuk: *zaudezen, gaude & gaudez, zaude & zaudez, daude & daudez* ageri dira Orion. Pasaian, berriz, hurrengoak ditugu: *dozte, zaozte, zozten*. Bigarren pertsonan *zaudez* ageri da Donibanen, Orion bezala. Donostian *daude & doste* erabiltzen dira, bai, baina ez inondik inora \**daudez* edo \**zaudez* tankerako deus; halaz guztiz ere, 1886ko *Anton Caicu* lanean *daudez* eta *zaudezte* aldaerak dakartza M. Soroak eta baita *zaudezen* ‘zeuden’ ere: Abelino Barriolaren antzerki lanetan ere bada: *proatu ia onak daudezen* (1987 [1912]: 118): Pepe Artolaren lanean ere *gaudez*: ageri da (1962: 78). Benetan Donostian erabiltzen ziren, ala antzerkiak edota topikoak beharturik idazleak horrela kutsu zenbait emateko egin ote zuen? Egungo donostiarrarendako aldaera harrigarriak diruditen arren, ezin saihestu daiteke adizki hauek Donostia ezker-eskuin guztiz inguraturik dutelako errealitatea; ondikotz, euskararen inguruko soziolinguistika historikoko lanak ez ditugu nahi bezainbat aitzinatuak honelako korapiloak behar den bezala askatzeko.

4.4.15. “Etorri” aditzaren adizki trinkoak ordezkatu dituen Euskal Herriko ekialdeko *eldu da* ‘dator’ aldaera ageri zaigu Donostiatik eskuin, esate baterako Lezon. Ondoko Erreterrian ere *datorren & eldu den* ageri dira *Erizkizundi*-ko XX. mende hasierako emaitzetan.

4.4.16. Pluraleko adizkietan -ti morfema ageri da “Etorri” eta “Joan” aditzen aldaera trinkoetan Donostiatik mendebaldera; Andoainen *baatozti* bildu da (EAEL); Orion *dijuazti & zijuaztilla* (Iturain & Loidi 1996) eta *zetoztilla* (EAEL, 111): iduri luke Lasarten txandaketa dagoela: *gatozti* dago. eta *datozti*, baina baita *datoz* soila ere. Añorgan *dijuaztela* bildu dugu guk. Donostian -te da morfema: *datoz & datozte* edo *dijuaz & dijuazte* erabiltzen dira, ez dago -ti-ren arrastorik.

4.4.17. Hiketako aldaera alokutiboetan behin Añorgatik ezker afrikatu sabaiaurrekoaren agerpena dugu, donostiar kaletarraren belarrirako arrunt nabarmen gertatzen dena: *zioken* (Donostia, Altza. Pasaia San Pedro) / *zitxiokan* (Añorga): konpromisozko jokabidea dago Lasarten: *zitxiun / zi(g)uken*. Hurrengo hauek guztiak ere Lasartekoak dira: *nitxoan* ‘nioan’. *gatxaudek, natxatorrek*. Zubietan ere antzera: *sitxaiñ* ‘zitzaian’; baita Usurbilen ere: *zitxaiñ*; baina *zitzaiken* bildu da Lasarten. Igeldoko *zitzaiken* gogora dakarkiguna. Orion ere sabaiaurrekoa ageri da: *zitxian* ‘zidaan’, *genitxixkiyon* ‘genizkioan’, *nitxeon* ‘nengoan’. Dirudienez, eta Anizeto Zugasti altzatar zenaren arabera (Irizar 1991: 70). Donostian -tx-soilik ‘niauk’ eta ‘niaun’ adizkietan dago: *natxiok & natxion*; hauekin batera *niak & niok* eta *nian & nion* ere erabiltzen dira Donostian (ibid.). Morfema sabaiaurreko afrikatuaren zantzu zenbait bada Donostian Igeldo auzoan: *nitxien* ‘noan’; halaz ere hobeki aztertu beharreko gaia da.

4.4.18. Lehia dago Donostialdean *naiz*-en maskulinoko alokutiboko *nauk* eta *nak* aldaeren artean: *nauk* dago Orion, Igeldon eta Añorgan, baina Hernanin, Usurbilen, Zubietan, Lasarten, Donostian, Pasaian, Lezon eta Erreterian *nak*; Oiartzunen *nak* & *nauk* daude. Donostian *nauk* ere badago eta Anizeto Zugasti zenaren arabera *nak* aldaerak baino erabilera zabalagoa du; M. Soroaren Gabon antzerki lanean badira *nak*-en adibideak: *jungo nac*.

4.4.19. Datiboa bigarren pertsonako singularra denean oro har aldaera murrizagoak erabiltzen dira Donostia inguruan mendebaldera nahiz ekialdera: *nin* 'nian' (Añorga); *dizkit* & *dizkitt* 'dizkiat', *dit* & *diat* 'diat' (Hernani); *nin* & *nixkin* (Usurbil). Orion badirudi berriz ere aldaera osoagoak, ageri direla: *dijat*; antzera esan daiteke Igeldo auzoaz ere: *niyan* & *nizkiyan*; Donostian *nian* bildu da eta *zekiat* dakar V. Iraolak (1894: 15). Pasaian -a- ez den beste morfema bat ageri zaigu: *niken*. Oiartzunen *nin* laburtua ageri da.

## 4.5. Lexikoa

4.5.1. Donostiako lexikoaren apartekotasunik ezaren berri izan daiteke *Euskalerriko Arlas Etnolinguistiko*-a (1984 eta 1990) dagokigun eremuan amiñi bat aztertuz gero. Muga lexikoak inon biltzen ote diren jakin nahian halako ibilbide bat egin dugu Asteasutik Erreteriaraino Hernanin eta Donostian barrena. Ez da anitz aurkitu duguna, baina dagoen jauzi apurra, aitzineko ataletan gertatu den bezala, Donostiatik ekialdera sumatzen da. Hurrengo datuak Asteasu / Hernani / Donostia / Erretereria hurrenkerari dagozkio eta aldaketa Donostiatik eskuin dagoela ageri dute; zenbakiak *Atlas*-ekoak berak dira:

*zutik* / *zutik* / *zutik* / *zutiñik* (24)

*txerriya* / *txerriya* / *zerria* / *txerria* & *urdea*<sup>20</sup> (85)

*usua* / *uxua* & *antxeta* / *usua* & *itxas-txori* / *uxua* & *kayua*<sup>21</sup> (93)

*atxurra* / *atxurra* / *atxurra* / *altxurra* & *atxurra* (138)

*soñekua* / *alkandora* / *soñekua* & *alkandora* / *soñekua* & *alkandora* & *atorra* (144)

*motxa* / *motxa* / *motza* / *motz* & *labur* & *eskas* (211)

*lañua lañua*<sup>22</sup> / *lañuba*<sup>23</sup> / *odeya*<sup>24</sup> (228)

*lota jute a ??* & *lotan sartua??* / *oyeatzea ijua* & *oyeatu in da* / *etzaten da* & *etzan egin da* & *oyeatzen da* & *oyeatuta dago* & *oyeatutzen da* / *etzin egiten da* & *etzin da* (309)

*tximuba* / *tximuba* / *tximua* / *tximiyua*<sup>25</sup> (437)

20.- Pasaia Donibanen ere *urde* bildu du Izaskun Etxebestek.

21.- Mendebaldetik *kayo* dago Zarautzen ere.

22.- Goizuetan "*auri lañoak*" nahiz "*odeiak*" erabiltzen dira.

23.- Beste lekuko baten arabera *lañua* 'niebla' da eta *lanbrua* 'niebla de mar'.

24.- Oiartzunen ere *oreya* erabiltzen dute eta Hondarribian *oria*.

25.- Irunen *tximiñu* bildu da.

4.5.2. Gerraren aitzineko Azkueren *Erizkizundi*-a ez da lanabesik egokiena azterketa lexikoak behar den bezala egiteko, baina dagoen apurrak Donostiatik Erreteriarra aldea badela ohartzeko aukera ematen digu. Hurranen adibideetan aise da ohartzea ezkerreko aldaera, Donostiakoa, Gipuzkoako mintzo orokorrarekin batera doala eta Erreteriarakoa ekialdeko mintzoetara saihesten dela: *ezer- / deus*<sup>26</sup>, *gora / goitt*<sup>27</sup> *txistu / ixtu, txonkatilla / txurmioa, zein / nor*.<sup>28</sup>

4.5.3. Bestalde, orain artean lanabesetan ageri diren desberdintasun batzuk dakartzagu; ezagun duenez, frankotan ez dira denak lexikoari bete-betean dagozkion adibideak, fonologiaren inguruko hitz baten aldaera lexikalizatu ez sistematikoa baizik. baina honelako mikrodialektologiako lan batean ezin saihestuzkoak direla uste dugunez hona ekarri ditugu:

*alde* (Donostia) / *ayeka & alde* (P. Donibane, Lezo. Hernani, Goizueta)

*arrautz* 'arraultzea' (Donostia, Hernani, P. Donibane)<sup>29</sup> / *arraultz* (Aiete) & *arroltz* (Aginaga)

*asnasa* (Donostia, Hernani) & *asnasia* (P. Donibane) / *arnasa* (Aginaga)

*atea & etera* (Donostia)<sup>31</sup> *erten tzian* 'irten ziren' (Zarautz)

*atzalde* (Donostia) / *artzalde* (P. Donibane)

*bakoitz* (Donostia) / *bakotx* (P. Donibane)

*baño(n)*<sup>32</sup> & *maño* 'baina' (Donostia) / *miño* (Donibane, Lezo) & *biño* (Erreteriarra. Lezo)<sup>33</sup>

*batzoi* (Donostia) / *baatxui* (Hernani)

*bezala* (Donostia, P. Donibane, Lezo) / *bejela* (Aiete, Kaia)<sup>34</sup>

*biar* 'behar' (Donostia, Asteasu. Erreteriarra, Lezo)<sup>35</sup> / *ber* (Beizama, Aia, Zarautz, Orio, Erreteriarra)<sup>36</sup>

*e(d)o* (Donostia) / *e(r)o* (Getaria) & *ero* (Usurbil)

26.- Lezon ere *deus* erabiltzen da.

27.- Lezon ere erabiltzen da *goitti*.

28.- Pasaian eta Erreteriaran ere ageri da *nor*; bide berean *norbea* Donostiako Altzan, Pasaian eta Hernanin dugu; guk Antiguak *bakoitza* entzun dugu.

29.- Lasarten *arrutz* bildu da.

30.- Etxagaraik *arraultza* zerabilen

31.- Andoainen eta Lezon ere *atea* dugu, baina Asteasun *ata*.

32.- Zarautz, Asteasu, Andoain eta Usurbilen *baño*. Pasaia San Pedron, Donibanen eta Erreteriaran ere bada *baño(n)*. Hernanin, esaterako, *baño* hala 'baina' nola 'baino' da; bestalde, Hernanin *baiño* ere bada 'baino' eta P. San Pedron ere *baño* ere bada 'baino'.

33.- Bada Lezon *beño* ere.

34.- Augustin Anabitarte idazle donostiarrak ere erabili zuen inoiz eta Azkueren hiztegiak Beterrin erabiltzen dela dakar.

35.- Tolosan eta Hernanin *bear* dago eta Aginagan *bier*; Aranon *biertut* bildu da.

36.- Lezon *benun* 'behar nuen' ageri da.

*emen* 'hemen' (Orio, Donostia) / *amen* (Getaria)  
*errex* (Donostia) / *aixa* (Usurbil, Añorga)<sup>37</sup>  
*eskubi* (Donostia) / *eskoï* (Lezo, Oiartzun)  
*etxe* (Donostia, Usurbil, Igeldo, Hernani) / *itxe* (Getaria, Zarautz, Orio, Igeldo, Pasaia, Lezo, Erreterria, Hernani, Arano, Goizueta)  
*euskeaz & erderaz* (Donostia) / *euskaraz & erdaraz* (Lezo)  
*far* 'irria, barrea' (Donostia, Lezo) / *par* (Aginaga)  
*gabe* (Donostia)<sup>38</sup> / *betanik* 'gabetanik' (Igeldo)<sup>39</sup>  
*galdetu* (Donostia) / *galdatu* (Lezo)  
*goatu* (Donostia, P. San Pedro) / *akordatu* (Andoain, Hernani)  
*igande* (Donostia) *jai* (Andoain, Aginaga)<sup>40</sup>  
*illunabar* (Donostia)<sup>41</sup> / *iñular* (Zarautz, Aginaga, Ibaeta)  
*jela* 'izotza' (Donostia) / *orma & ,jela* (P. Donibane)  
*jetxi* (Asteasu, Donostia) / *jatxi* (Orio, P. San Pedro, P. Donibane, Lezo)  
*junio* (Donostiaya)<sup>42</sup> / *ga(r)agarri* (Hernani)  
*kamiyo* (Donostia, Lezo) / *kamiño* (P. San Pedro, P. Donibane)  
*kendu* (Donostia) / *ekendu* (P. Donibane)<sup>43</sup>  
*kirten* (Donostia) & *kerten* (Hernani) / *kiar* 'giderra' (P. Donibane)  
*lanbata* (Donostia, Andoain) / *laumatian* (San Pedro)  
*lenbizikua* (Donostia) / *linbizikua* (Lezo)<sup>44</sup>  
*nastutu* 'nahasi' (Donostia) / *nastu* (Aginaga)<sup>45</sup>, Hernani, P. Donibane)  
*oañ* (Donostia, P. San Pedro)<sup>46</sup> / *min* (Pasaia)  
*omoste* (Donostiako Antigua)<sup>47</sup> / *unbest'urtian* (P. San Pedro) & *umeste* (Hernani)

---

37.- J. V. Etxagaraik ere badarabil *aisa*.

38.- Erabiltzen da Donostiako Antigua -*pe* laburtua partitiboaren ondoren ahoskabeturik *diruipe* 'dirurik gabe' bezalako adibideetan. Igeldon, berriz, *ibili be* 'ibili gabe' bildu dugu; Hemanin *aletu be* bildu da (EHHA).

39.- Bilintzek *gabetanik* & *bagetanik* zerabiltzan; M. Soroak, F. Imazek -*gabetandik*-ekin batera-, A. Barriolak, P. Artolak eta A. Anabitartek ere *gabetanik* dakarte.

40.- Donostian bi auzotan bederen ageri da *jai*, Añorgan eta Ulian; Etxagaraik ere bazerabilen.

41.- Hernanin *illunar* bildu da.

42.- Donostian ezagutzen dute adinekoek *garagarrilla* baina erabili *juniyua* erabiltzen da; *Erizkizundi*-ak *garagarril* dakar Donostian.

43.- J. V. Etxagarai donostiarrak *bizia ekendu* dakar 1838ko bertso batean (1964: 162). P. Donibanen *kia* 'kea' erabiltzen da, ez \**eke* hitza (EHHA).

44.- Erabiltzen da Lezon *leenbizi* ere.

45.- Bada *nastutu* ageri den testuinguru zenbait Aginagan ere.

46.- Baita *oañ* ere, Lezon bezala.

47.- Hernanin *onbeste*.

*ordoi* (Donostia, Getaria, Orio, Pasaia, Oiartzun -Lasarten *ordai-* ) / *erdoi* (Asteasu, Hernani, Lasarte, Ibaeta)

*osto* (Donostia) / *ostro* (Zarautz)

*señare* 'senidea' (Añorga. Errando, Altza)<sup>48</sup> / *siñere* (Erreenteria)

*udaberi* (Donostia) / *primadera & primabera* (Erreenteria)

*udara* 'uda' (Donostia) / *uda* (Zarautz)

*udazken* (Donostia, Andoain, P. Donibane) / *udatzen* (Zarautz, P. Donibane)

*uju* (Donostia, Aginaga) / *iju* (Hernaniko hegoaldea, P. Donibane)

*ura* 'edateko ura' (Donostia) / *uda* (Azpeitia, Tolosa)

*utzi* (Donostia) / *laga* (Getaria, Zarautz, Orio)<sup>49</sup>

## 5. Abiatu beharraz

Arestiko orrietan idatzitako guztia ez da behin-behineko sarrera bat baizik. lehen ikuspegia, lehenbiziko soa, ez doa urrunago, orain hasten den ikerketa lanaren abiaburua besterik ez da. Esaterako, sintaxiko gaiak alde batera utzi ditugu, nahiz baden aldea Donostiatik eskuin Pasaiara perpaus konparatiboetan edota Oiartzunera erlatiboetako perpausetan, ermoduzko egitura indartuetan nahiz datiboaren kornuntzaturaren gaian: halaz ere, hau ez da lan luzeago baten lehenbiziko atala baizik, eta helburua gaia aurkeztea du, ez osoki aztertzea.

Jorratu nahian gabiltzan sail hau *terra incognita* dela iruditzen zaigu, bestalde; maiz entzuten da han eta hemen halako murrizketa edo berrikuntza donostiarkeria linguistiko bat baino ez dela, hori donostiarren gauza dela, baina aipatzen eta salatzen diren ezaugarrietarik batzuk donostiar garenok ez ditugu ez ezagutzen ezta erabiltzen ere; batzuetan arrazoi dute salaketok, baina gaude ez ote dagoen sobera zabaldurik Donostiako euskerari buruz espekulatzea eta ezagutu gabe berari buruzko iritziak emate hori: J. San Martinen ustez (1986: 9 eta 11): "donostiar era jatorrean idatzia" dago Anabitarteren *Usauri* lana eta "gure mendeko donostiar hizkeraren lekuko" da bere obra, baina gauzak ez dira diozen bezalakoak.

Donostiako euskera aski era koherentean egituratzen da inguruan dituen herrietako hizkeretik, ez da jauzi nabarmenik sumatzen bertatik Lezo-Erreenteria-Oiartzun ingururaino; hegoaldeetik eta mendebaldeetik dituen herrietako hizkeretik ere alderatu behar da, baina eremu horietan badirudi aldaketak mailakatuago gertatzen direla: hori da ikusi batera ageri

48.- Hemanin *señide* bildu da eta *señire* dakar P. Artolak. F. Imazek *senire* dakar.

49.- Mende honen hasierako bertsoetan edo iragan mende bukaerako olerkietan –Etxagarai, Bilintx, F. Imaz, P. Artola- eta antzerkian maiz ageri da *laja* Donostian; kalderoetako kantu batean ere ageri da: ...*ez gera ,joango oyek lajata geyago Donostiyatik...* Juan Antonio Letamendiak *laja*-ren makina bat adibide bildu du Hondarribian. *Laja*-z gain bada *larga* Etxagarairen olerkietan. Bestalde, *laga* ere ageri da Donostian: 1761eko gutunetan, F. Imazen bertsoetan *-metri causa* bada ere- eta A. Barriola eta A. Anabitarteren lanean.

dena. Eskuarlean darabilgun eta lehen urratsak egiten hasi den ikerketa lan honek hori du bere helburuetarik bat, Donostiako hizkeraren berri ahalik eta xeheena ematea. Jabetzen gara horretarako Donostiaren ingurumariako herrietako hizkerak ere aztertu behar direla, auzoak eta hiri edo kalea eta baserria ez direla berdin mintzo: baserrietan edo auzoetan ez dugu kaletarren euskara kaxkar hori entzuten, eta beraz, alderdi soziolinguistikoa - hizkera urbanoa- eta geolinguistikoa - Donostiako euskera Gipuzkoakoaren barrenean-, biak batera aztertzea eskatzen du honelako lan batek. Lekuko bakoitzaren idiolektoaz arreta ezarri beharraz ere idatzi dugu aski lanaren hasieran, oren buruan hau mikrodialektologiako lan bat baita.

XVIII-XIX. mendeetako idazkietan ageri dena xeheki ezagutzea eta galbahetzea ere baitezpadako dakuskigu kirten zuzenik aterako bada; galbahetzea ez da lan erraza gero! Izan ere, idazle donostiarrek oso bertako ziren aldaerez gain, kanpoko hainbat eta hainbat era ere bazerabiltzaten, eta egungo begiendako ez da aise orduko Donostian aldaera horiek –eta donostiar jantzien artean molde jasoagoak- erabiltzen ote ziren xuxen jakitea; beti ere, egungo Donostiako ahozko hizkeran arrasto zenbait utzi duten ala ez duten ikusiz atera daiteke orain berean dugun baino argi gehiago. Ikergaia hiri bateko hizkera denez eta Donostia aldameneko herrietarik hirira jo duten lagunez etengabe elikatu denez, urte hauexetan galtzen ari den eta gazteenek nolakoa den/zen ez dakiten “Irutxuloko” bereko euskara jatorra definitzera eta deskribatzera iristea ametsa dirudi, hain baita handia dagoen aldakortasuna, baina ahalik eta gehien hurbiltzea ez dugu uste ezina denik, bereziki lantxo honetan aipatu ditugun baldintzak amiñi bat zaintzen baldin badira.

## Bibliografia

- Altuna, F.. 1995, "Pleonasmo baten historiaz: dehea 'dute' bezalako adizkien inguruan", *ASJU* 29-1: 219- 244.
- Altzibar, X.. 1992. "Larramendi eta literatur gipuzkera", in Lakarra J. A. (arg.), *Manuel Larramendi. Hirugarren mendeurrena: 1690-1990*: 325-360. Andoain: Andoaingo Udala, Euskaltzaindia, Eusko Jaurlaritza & Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Alzaga, T. 1990, *Jostirudiak-Irritza*, [Mendiguren X. arg.] Oiartzun: Euskal Editoreen Elkarte & Eusko Jaurlaritza.
- Alzola. N., 1994, *Euskaraz*, Irunen barrena, Irun: Luma.
- Anabitarte, A., 1986 [1931], *Donostia. Irakurgaia* In *Augustin Anabitarteren idaz lanak*: 103-198. Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- Anzenhofer, T. 1998, "Dialects and standardisation: some (subjective) observations on German", *International Journal of Dravidian Linguistics* 27-2, 97-106.
- Artola, P. 1961, *Ustez laguna detan ta heste bertso asko*. Tolosa. Auspoa liburutegia 4.
- Bagera, 1993. *Donostia euskaltzaleen bidetik 1992*, Bagera, Donostia.
- Barriola. A.. 1987. *Dramak*, [Mendiguren X. arg.]. Zarautz. Euskal Editoreen Elkarte & Eusko Jaurlaritza.
- Bellmann. G.. 1998. "Between Base Dialect and Standard Language". *Folia Linguistica* 32-1 / 2: 23- 34.
- Bilintx. 1911. *Neurtitzak eta neurri gabeko itzak*. Donostia. Martín, Mena. y C.a.
- Bortoni-Ricardo, S. M., 1985. *The urbanization of rural dialect speakers. A sociolinguistic study in Brazil*. Cambridge University Press.
- Camino, I. 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Iruñea. Nafarroako Gobernua.  
1998. "Zer dago dialektologiaren gibelean?". In Camino I. (arg.) 1998: 111-1444  
1999. "Goñerriko hizkera (I)". *ASJU* 33-1n argitaratzekoa.  
1999b, "Goñerriko hizkera (II)", *ASJU* 33-2n argitaratzekoa.  
1999c, "Donostiako hizkera / La modalidad lingüística de San Sebastián", *Euskonews & Media*, 1999/2/ 23.
- Ciérvide, R., 1987, "Documentación gascona de San Sebastián y de la Baja Navarra de los siglos XII-XIV: comentario lingüístico". In Ciérvide R. (arg.) *Pirenaico, navarro-aragonés, gascón y euskera*: 199- 276. Bilbo: EHU.
- Dalen, A., 1993, "The Emergence of an Urban Dialect". In Wolfgang Viereck (arg.), *Proceedings of the International Congress of Dialectologists, Bamberg, 29/7 - 4/ 8*, 1990. Historical Dialectology und Linguistic Change. Linguistic Atlases and Dictionaries: 42-49. Stuttgart: F. Steiner.

- Dorian, N. C., 1994, "Varieties of variation in a very small place: social homogeneity, prestige norms and linguistic variation", *Language* 70. 631- 696.
- Elortegi, A. M., 1992, *Pasaiaiko toponimia*. Bilbo: Euskaltzaindia, Onomasticon Vasconiae-8.
- Elortegi, A. M., O. Olaetxea, J. L. Agirretxe & M. Lersundi. 1997. *Pasaia eta Lezo hizketan*, Pasaia-Lezo Lizeoa & Gipuzkoako Foru Aldundia & Ikastolen Elkartea.
- Etxagarai, J. V., 1984, *Festara*. [Zabala A., arg.] Tolosa: Auspoa Liburutegia-35/36.
- Fraile, I. & Fraile, A., 1996, *Oiartzungo hizkera*. Oiartzun: Oiartzungo Udala.
- Gaminde. I. 1987. "Bilboko euskara aztertzeko materialeak". *FLV* 19: 207-250.  
1990. *Bilbo berbaz berba*, Bilbo: Bilbo Berreuskalduntzarako Koordinakundea
- Hervás, L.. 1979 [1800-1805]. *Catálogo de las lenguas de las naciones conocidas y numeración, división y clases de estas según la diversidad de sus idiomas y dialectos* (6 liburuki). Madril: Atlas.
- Hinskens, F. 1998, "Dialect Levelling: A Two-dimensional Process". *Folia linguistica* 32-1/2: 35- 51.
- Iraola. V ., 1894. *¡Onentzaro gaba!*. Donostia: V. Iraola-ren moldizkida.
- Irizar, P. 1991. *Morfología del verbo auxiliar Guipuzcoano* (2 liburuki). Bilbo: Euskaltzaindia.  
1992. *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional* (2 liburuki). Iruñea: Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernua  
1997. *Morfología del verbo auxiliur labortano*. Bilbo: Euskaltzaindia & EHU.
- Iturain, I. & L. Loidi, 1995. *Orioko euskara*. Orio: Orioko Udala.
- Ivars, A. M. 1994, "Bidialectalism and Identity". in Nordberg B. (arg.). 1994. 203-222.  
1998. "Urban Colloquial Swedish in Finland", *Folia Linguistica* 32-1/2: 101-114.
- Izagirre, KANDIDO, 1967. "Tolosako euskeraren iztegirako gaiak", *BAP* 23: 157-188.
- Izagirre. Koldo., 1998. *Euskararen historia txikia Donostian: 1800 /1998*. Zarautz: Susa
- Jausoro, N., I. Martínez de Luna, & A. Davila, 1998, "Gazte donostiarren hizkuntzarekiko harremanak", *Bat*-27, 51-81.
- Kardaberaz, A.. 1761, *Eusqueraren berri onac*. Iruñea: A. Castilla.
- Labaka. A.. M. E. Azurza, & , J. I. Bereziartua 1996, *Lasarte-Oriako euskararen azterketa*. Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako Udala.
- Lakarra, J. A., 1985, "Literatur gipuzkerarantz: Larramendiren Azkoitiko sermoia (1737)", *ASJU* 19-1: 235-281.  
1997, *Refranes y sentencias (1596)*. *Ikerketak eta edizioa*. Bilbo: Euskaltzaindia, *Euskararen lekukoak*-19.
- Larramendi, M., 1969 [1882], *Corografía di Guipúzcoa*. [Tellechea J. I., arg.]. Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.



- Letamendia, J. A. & TX. Sagarzazu, 1992, "Hondarribiko hizkera Roque Jazinto Salazarren predikuan (1778)", in Aurrekoetxea G. & X. Videgain (arg.), *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra*. Agiriak: 497- 533. Bilbo: Euskaltzaindia, Iker- 7.
- Lodge. A.. 1998. "Vers une histoire du dialecte urbain de Paris". *Revue de Linguistique Romane* 245- 6, 95-128.
- Milroy, L, 1987 [1980]. *Language an social networks*. Oxford: Blackwell.
- Mitxelena, K., 1950, "En torno a algunos aspectos del habla de Rentería (Guipúzcoa)". *BAP* 6: 89-94.  
1988 [1960], *Historia de la Literatura Vasca*, Donostia: Erein.
- Moguel, J. A. 1800. *Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteac*, Iruñea: Ezquerroren alarguna.
- Mujika, S. 1907. "Observaciones sobre la ley de afinidad de las vocales en los sub-dialectos septentrional y meridional en Guipúzcoa", *RIEV* 1: 56- 58.
- Nordberg. B. 1994, "Introduction". In Nordberg. B.(arg.) 1994: 1-15
- Nordberg, B. (arg.), 1994, *The Sociolinguistics of urbanization: The Case of the Nordic Countries*. Berlin & New-York: Walter de Gruyter.
- Oñederra, M. L. 1986 "From automatic assimilation to sound symbolism", *ASJU* 20-1: 67- 74.
- Owens, J., 1995. "Minority languages and urban norms: a case study", *Linguistics* 33: 305-358.
- Pelay Orozco, M. 1978. "Bilinch a los cien años de su muerte", In *Bilintx (1831- 1876)*: 11-23. Donostia: Grupo Doctor Camino de historia donostiarra.
- Requena, F. 1996. *Redes socides y cuestionarios*. Madrid: Centro de Investigaciones Sociológicas.
- Salaberria, O. & A.. Pontesta. 1991. "Gure hizkera hobeto ezagutu nahirik. Auxtina Salaberriarekin hizketan", *Lezo*-6: 31-35.
- Sankoff, D. & S. Laberge. 1978. "The linguistic market and the statistical explanation of variability". In Sankoff, D. (arg.), *Linguistic variation. Models and methods*: 45-55 New York: Academic Press.
- San Martin, J. 1986. "Hitzaurrea". In *Augustin Anabitarteren idaz lanak*: 9-11. Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- Satrustegi, J. M., 1983, "Epistolario vasco del siglo XVIII", *ASJU* 17: 3-24.
- Siegel, J., 1993. "Dialect contact and koineization". *International Journal of the Sociology of Language* 99: 105-121.
- Soroa. M.. 1878. *Iriyarena*. Donostia: Imprenta de Juan Osés  
1880. *Gabon*, 2. arg. Donostia: Pozo eta C.  
1882. *Anton Caicu*. Donostia: Osés.  
1886. "Baratzan". *Euskal-Erria*, 14-15. zb., 13 jolas.

- 1961 [1884]. *¡Au ostatuba!* [Zabala, A., arg.]. Tolosa: Auspoa Liburutegia-2: 65-105
- Taeldeman, J. 1998. "Levelling Phenomena in the Flemish Dialects: Some observations on their teleology". *Folia Linguistica* 32-1/2: 11-22.
- Tellabide, J. 1995. *Donostiako Toponimi Erregistroa*. Donostia: Kutxa.
- Thomas, P. L.. 1997. "Le serbo- croate (bosniaque, croate, serbe). De la dialectologie rurale à la dialectologie urbaine". In *Proceedings of the 16th International Congress of Linguists*. Oxford: Pergamon, paper n°. 0114.
- Torres, M. G.. 1993. "Interferencias léxicas vasco-románicas en el castellano de San Sebastián", *ASJU* 27-2: 449- 538.
- Trudgill, P., 1986. *Dialects in contact*, Oxford: Blackwell.
- Viaplana, J., 1996, *Dialectología*. Valentzia: Universitat de València.
- Zabala, A. 1963. *Ferrnin Imaz. Bertso guziak*. Tolosa: Auspoa liburutegia 24.  
1968. *Alza'ko bertsolari zaarrak*, Tolosa: Auspoa liburutegia 76.  
1968b. *Errenteria'ko bertsolari zaarrak*. Tolosa: Auspoa liburutegia 74-75.
- Zalbide, M. 1993. "Donostia 1761: hiztunak eta hizkuntzak" In *Donostia euskaltzaleen bidetik*: 8- 11. Donostia: Bagera.
- Zuazo, K. 1997. "Oiartzungo hizkeraren kokagunea". *FLV* 29, 397-425.  
1998. "Euskalkiak, gaur". *FLV* 30. 191-233.
- Zubiri, J. J. & P. Perurena. 1998. *Goizueta eta Aranoko hizkerak*. Iruñea: Nafarroako Gobernua & Goizuetako eta Aranoko Udalak.